



## Oñatz taldearen ospakizuna

Bihar hasiko dira 45. urteurren ekitaldiak | 14



Lazkano eta Quintas. | OIHANA ELORTZA

Agorrosingo prezio igoeraren aurkako kanpaina abiarazi dute | 12



Eskualdeko eta gertuko 19 artistaren lanak Kulturaten | 32



Leintz Gatzaga, artisauen topaleku San Milixan azokarekin, etzi | 7

## Oinezkoak lehenengo

Zabalduta Arrasate pasealekua | 8



Arrasate pasealekuaren itxura berritua, atzo, eguna, azken ukituak ematen zebiltzala.

UBANE MADERA

# Urbanext proiektua defendatu dute Candyko langile ohiek

Bergarako plantan jardundako 50 bat behargin ohik bat egiten dute berrindustrializazioarekin | 2

### Datozen herri galdeketen harira, %70etik gorako birziklapen maila aldarrikatu dute

Debagoiena Zero Zabor taldeko ordezkari eta zabalak eskatu du tasa hori bermatzea | 3



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Markel Uriarte, Anboton gora eta behera
- Jose Antonio Azpiazurekin berbetan

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

### SINADURAK

Udal erretratu ahaztuak | 6  
XABIER MUGARTZA

6 | Molde berriak eta freskoak  
IBAN ARANTZABAL

Urtaroen joan-etorria | 9  
NEREA MAKAZAGA

12 | Bergara No-doa  
MARJE UGALDE

Meta-zutabea | 15  
XABIER ETXEBARRIA

40 | Raka-raka-raka  
IDOIA ETXEBERRIA

## Laboral Kutxa Baskonia – Bartzelona

partidurako 4 sarrera bikoitz zozketatzen ditugu

Azaroaren 22an Buesa Arenan jokatu den partidurako (18:00)

**Animatu eta parte hartu!**

**PARTE HARTZEKO (AZAROAREN 17RA ARTE):**

WhatsApp: [BASKONIA] [baskidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuzaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: klub@goiena.eus



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



# Candyko langileek Urbanext-en proiektua babesten jarraituko dute

- ▶ Eusko Jaurlaritzarekin batzarra eskatuko dute, egoera bideratzeko
- ▶ Diote ez dutela ulertzen gobernuak proiektuarekiko jarrera aldatu izana

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Azken egunotako gertakariak –Urbanext enpresaren proiekturako azkenean diru-mailegu publikorik egongo ez dela jakitea, aurretik, bilera pribatuetan, langileen ordezkariak baiezkoa jaso izan zutenean; eta komunikabideen bidez jakitea– kolpea izan dira Candyren berrindustrializazioarekin bat egiten duten langileen dako. Hala ere, eguazten iluntzean egin zuten batzar orokorrean, aurrera jarraitzea erabaki zuten: Urbanext-en proposamena babesten jarraitzea eta, bestetik, diru-mailegu publikoa berriz eskatzea. Langile guztiak ados ipini ziren eta urgentziazko prentsa oharra ere egin zuten.

Enpresa batzordeko kide Zorion Ortigosak honela laburtu du langileen jarrera: "Babes instituzional ezak kinka larrian jartzen du proiektua, baina indartuta atera gara batzarretik; langileek erabaki dute proiektuarekin aurrera egitea eta ahalegin guztiak egitea, beraz, alde horretatik sendo irten gara. Erabaki dugu Eusko Jaurlaritzarekin bilera burutu behar



Langileen talde-argazkia, batzarra eta gero. | LEIRE KORTABARRIA

dugula, ez datorrelako bat eremu pribatuan genekiena eta gero publikoki atera dena". Argitu duenez, langileen helburua ez da "kulpak" banatzea, baizik eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea "hitza bete dezala" eta jarrera alda dezala. Langileek uste dute gobernuak "oraindik garaiz" dagoela egoera bideratzeko eta proiektuari babesa emateko.

## Langileak, "harrituta"

Joan den astean jakin zenez, elkarrekiko berme sozietate Oinarri eta Elkargik Candyko instalazioetan *tetrapack*-arekin hiri-altzariak egiteko enpresa irekitzeko proiektuari diru-mailegurik ez ematea erabaki zuten baina, langileen ordezkarien esanetan, bilera pribatuetan babes hori emango zutela agindu zieten.

Ortigosaren esanetan, jarrera aldaketa hori "harriduraz" hartu dute, eta honako hau ere salatzen dute: "Larria iruditzen zaigu beste hainbat proiektutarako dirua egotea eta gure proiekturako ez egotea, are gehiago mailegua denean, ez diru-ekarpena".

## Egoera gogorra askorendako

Batzarra egin aurretik, animoa baxu zegoen langileen artean, azken egunotako gertakizunen ondorioz eta euren egoera pertsonalaren ondorioz ere. Zorion Ortigosak azaltzen duen moduan, "askok eta askok langabezia prestazioa bukatu dute eta ez dute gehiago jasotzeko eskubiderik", eta, batez ere horiendako, "oso gogorra da hainbeste bileratan ibili behar izatea hainbeste denboran".

Candyko langile ohiek ez zuten nahi izan komunikabideetara banakako adierazpenik egin, baina, batzar aurretik eurretako batzuek komentatzen zuten, "erakundeen arteko ika-mikak" tartean harrapatu dituela sentitzen dute. Gogora ekarri zuten Candyren berrindustrializazioa aurreko foru gobernuak bultzatu zuela, eta oraingo diru-maileguak Eusko Jaurlaritzaren esku dardela.

## Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan ipini da GOIENA bere komentarioak jasotzeko, baina, edizioa ixteko unean, oraindik ez zuen erantzunik jaso.

## Hiru jakitun berri izendatuko ditu Jakiunde Bergaran

Zientzia, Arte eta Letren Akademia (Jakiunde) gaur, egubakoitza, da Bergaran batzarra egitekoa, eta honako hauek kide edo *jakitun* berri gisa izendatuko: M. Jesus Esteban –matematikak–, Francisco Etxebarria –mediku legala eta forentsea– eta Teresa Catalan –musika konposizioa–.

Batzarrean akademiako kide ugari parte hartuko dute, eta, izendapenak egiteaz gain, erakundearen ekintza ildoak eztabaidatuko dituzte.

## Itxita dago AP-1eko Eskoriatzako tartea Gasteizko noranzkoan

Lurra jausitako ezpondan egonkortze lanak egiteko, zapatuko 18:00ak arte itxita dago AP-1 autobidea Gasteiz zerako noranzkoan, Eskoriatzako tartean. Atzo, eguena, itxi zuen Foru Aldundiak. Zirkulazioa tarteka bideratuko da beste noranzkotik, lanek irauten duten artean.

Martxoan gertatu zen lutzia autobideko tarte horretan, hilabete hasierako eguraldi txar boladarengatik. Konponketa lanak egin ondoren, uztailean geratu zen zabalik.

# BAZAR ARRASATE



**1.000 m<sup>2</sup>  
ZABALDU BERRIA!**

**Etor zaitez!**



San Andres Auzoa, 10 Pab (DIA eta MECA parean) - ARRASATE - Ordutegia: 09:30 - 21:30





Debagoieneko Zero Zabor taldea, Eskoriatzan egindako agerraldian. | G.A.

## %70etik gorako birziklatze maila bermatadadin eskatu dute

Eskualdean egingo diren herri galdeketen bueltan egin du aldarrikapena Debagoiena Zero Zabor taldeak

GOIATZ ARANA | ESKORIATZA

"Debagoienean hondakinak biltzeko hiru sistema desberdin daude martxan eta hirurek erakutsi digute eraginkorrek direla. Izan ere, batean zein bestean %80 inguruko bilteta selektibo maila dugu, eta guretzat, Debagoieneko Zero Zabor Taldearentzat, hori da garrantzitsuena, tasa horri eustea".

Horixe da Debagoiena Zero Zabor taldeak asteon azpimarratu duen datua, azaroaren 29an Bergaran eta Eskoriatzan eta urtarrilean Aretxabaletan egingo

dituzten herri galdeketen bueltan taldearen iritzia emateko bertako ordezkariak zabal batek martitzen iluntzean Eskoriatzan egin zuten prentsa agerraldian.

### Birziklapen mailari eutsi

Hain justu, aipatutako datua abiapuntu, Debagoiena Zero Zaborrek eskatu zuen herri galdeketen aukeratzeko den sistema aukeratzeko delako ere, %70etik gorako birziklatze-maila bermatu behar dela, eta hondakinak ondo sailkatzea herritar guztion betebeharrak dela gogorarazi zuen.

"Material konpostagarri eta birziklagarriak errefusetara botatzea ekidin behar dugu. Materialak zabor bihurtzea onartezina da, kutsatzea kaltetzea baita, besteen eskubideak urratzea eta administrazioak ezin du kalte eragiteko erraztasunik eman, ezin ditu kalte hori eragiteko bitartekoak jarri, gizonen eta emakumeen osasuna eta ingurumena babestu behar baititu".

### "Eredu" izaten jarraitu gura

Diskurtso horri eutsita, bada, hondakinak sailkatu behar duen garrantzi handia berretsi zuen agerraldian eskualdeko Zero Zabor taldeak. "Bide horretatik jarraitu nahi dugu Europar eredu izaten. Harrotasun puntu bat ere lortu dugu honekin, eta, gainera, gehiengo handi batek erraz egiten dugu, ez dago sekreturik, ikasi dugu eta erraza da. Emaitza hain interesgarriak lortzea, aldiz, ez da posible izango aurrerantzean, denok, herritar guztiok, ondo egiten ez badugu. Hondakinak ondo sailkatzearen lana herritar guztion betebeharrak delako, denon parte hartzea nahitaezkoa da", adierazi zuten Eskoriatzako plazan.

## Auto barruko eztanda batengatik ospitaleratuta

Atzo, eguena, Arrasaten auto bat erabat kiskali zen, baina gidariak barrutik irtetea lortu zuen

U.M. | ARRASATE

Auto batean leherketa gertatu zen atzo Zarugalde kalean, 06:30 inguruan. Gidariak soldagailu-bonbona bat zeraman autoaren barruan, eta zigarro bat piztu zuenean leherketa izan zen; hain justu ere, soldagailueta-rako erabiltzen den bonbona txikiko gas-ihes batek eragin zuen leherketa. Autoa erabat kiskali zuen suak, baina gidaria bere kabuz irten zen ibilgailutik, Arrasateko Udaltzaingotik azaldu zuten; kordean irten zen autotik eta suak hartutako jertsea erantzi ahal izan zuen.

Inguruan zebilen Udaleko zerbitzuetako kamioia handik igaro, eta sua berehala hartu ahal izan zuten mendeen. Udaltzaingotik jakinarazi zuten, bestelako kalteen berririk ez dute.

Gidariari dagokionez, Arrasateko ospitalera eraman zuten lehenengo eta Bilboko Gurutzetako ospitalera gero; ez dute adiztera eman zelan dagoen.

### Tiroketa, balinekin

Bestalde, Arrasaten bestelako gertakari bat ere izan da: pasa den asteke eguazten iluntzean eta egubakoitzean tiroketak izan ziren. Ez zen zauriturik izan, baina Iturriotz kaleko Itzala tabernan eta Zarraoa lurrin-dendan apurketak izan ziren. Oraingoan, udaltzainek duten ebidentzia bakarra da kalean aurkitutako balinak, baina horien jatorriaz eta tiroketen egiletzaz ezer ez dakitela dio Iñaki Arriaga udaltzaiburuak, eta, gainera, halako gertaerak argitzea ez dela "batere erraza" dio hark.

## Kilometroak 2016 kalean da

UBANE MADERA | BERGARA

1.000 lagun baino gehiagoren aurrean irudia, leloa eta jantziak erakutsi ondoren -joan den bari-kuan-, atak ireki ditu KMK 16ren saltokiak Bergarako Bidekurutzeta kalean. Bertan eskuragai daude Demasa leloa soinean daramaten kamisetak, kirol-jertseak eta bestelako osagarriak, ordutegi honetan: astelehenetik eguenera 17:00etatik 20:00etara; egubakoitzetan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00eta-

tik 20:00etara; eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.

### "Errespetuan..."

Aranzadi Ikastolarendako berezia den urteari begira, Lopez de Aretxaga ikastolako lehendakariak azpimarratu du "errespetuan, demokrazian, autonomian eta parekidetasunean" igaro nahi duela Aranzadik herritarrekin batera eta balio horiek ikastolarekin "konpartitzera" gonbidatu ditu herritarrek.



Aranzadi Ikastolako ikasleak aurkezpen jaialdian. | IMANOL SORIANO

MUNDUAREN AZKEN  
MUTURREKO  
EROSLEA

EROSKI online zurekin

EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

eroski.es

lurraldearen  
**%100**-era  
iristen gara



# BERGARAKO CHEF ONENAREN BILA



**GOIENA TELEBISTA | 'BERGARA CHEF'**  
EGUAZTENA, AZAROAK 18 | 22:00

## BERGARAKO CHEF 1. SAIKO PARTE-HARTZAILEAK:

- Ignacio Etxabari eta Hibaí Kareaga
- David Martinez eta Mikel Martinez

## Publikoaren saria: zein da sukaldean bikote onena?

Bidali WhatsApp-a 688 69 00 17 telefonora eta egin zure aukera:

1. aukera: *BergaraChef Ignacio*
2. aukera: *BergaraChef David*



### ANTOLATZAILEAK:



### LAGUNTZAILEAK:



HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

# "Bizikidetz" helburu Oroimenaren Egunean

Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan egin zituzten elkarretaratze isilak azaroaren 10ean

M.A. | ARRASATE

Lehenengoz deitutako Oroimenaren Eguna Debagoieneko hiru herritan izan zuten gogoan: Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan. Hamabost minutuko elkarretaratze isilak egin zituzten "bizikidetzaren esparruan aurrepauasoak" emateko asmoarekin.

Arrasaten 25 bat lagun elkartu ziren ordezkari politikoekin batera, baina EH Bilduko kiderik ez zen izan; haiek adierazi zuten ez direla "etxeko lanak aurrez egin" eta EAJ-PSEko gobernuak beste

udal taldeen babesaz "berandu eta era inprobisatuan" hartu duela iniziatiba. Aretxabaletan, EH Bilduko ordezkari bakarra izan zen elkarretaratzean eta ildo beretik egin zituzten adierazpenak. Hamaka lagun elkartu ziren han. Bergarako elkarretaratzea izan zen jendetsuena: 50 bat lagun izan ziren San Martin plazan (ikus 11. orria).

Jaurlearitzak egindako txostenean, arrazoi politikoengatik hildakoak Debagoieneko beste hiru herritan ere badaude: Oñatin, Eskoriatzan eta Antzuolan.



Galparsoro eta Arantzabal alboetan, Librekoek babestuta. | MIRARI ALTUBE

## Abenduaren 3ra atzeratu dute 4/08 sumarioaren baitako epaiketa

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Azaroaren 23rako iragarrita egon arren, abenduaren 3an hasiko dute 4/08 sumarioaren baitan dauden 35 euskal herritarren aurkako epaiketa. Horien artean daude lau debagoiendar: Bergarako Mikel Zubimendi, Mikel Garaiondo eta Aitor Arantzabal; eta Arrasateko Ino Galparsoro. Bergarako Libreko salatu du "epaiketa politikoa" dela eta horiek "sekula baino zentzu gutxiago" dutela egun.

Astelehenean eman zuten horren berri Libreko kideek, eta haiekin izan ziren Galparsoro eta Arantzabal. Azken horrek egoera gordina aurkeztu zien Artatsen elkartutakoei. Esan zuten martxora bitartean

Madrilera joan-etorrian ibili beharko dutela eta hori "nahikoa zigor" dela. Baina, gainera, seguru asko zigor-epaia jasoko dutela argitu zien. Era berean, eskertu egin zuten bergararrek eta gainerakoek erakutsitako babesak.

### Elkartasun ekitaldia gaur

Librekoek iragarri zuten epaiketaren zain egon arren "geldi" ez direla egongo, eta hainbat ekintza antolatu dituzte datozen egunetarako. Gaur, egubakoitza, elkartasun ekitaldia egingo dute Bergarako Zabalotegi aretoan, 20:00etan; ikus-entzunezkoa, musika, ekintzak eta ezustekoak izango dira. Herritarrei dei egin diete parte har dezaten.

## Arizmendiarrietaren lana kazetaritza sari batekin nabarmenduta

Mugimendu kooperatibistaren sustatzaile izan zen Jose Maria Arizmendiarrietaren lanaren eta ideien hedapena sarituko du Arizmendiarrietaren Lagunak elkarteak.

Edozein komunikabide, euskarri eta profesional zein kolaboratzaile dago zabalik, urriaren 19tik azaroaren 30era bitartean argitaratutako lanak aintzat hartuta. 500 euroko saria jasoko du egile irabazleak. Oinarriak eta argibideak [Arizmendiarrietaria.org](http://Arizmendiarrietaria.org) webgunean daude.

## Arrasateko zinegotzi Eva Abuin, Euskadiko Podemosen taldean

Euskadiko Podemosek behin-behinean osatu duen zuzendaritzako kide izendatu dute Arrasateko Baleike taldeko zinegotzi Eva Abuin.

Euskadiko idazkari nagusi izan den Roberto Uriartek dimititu ostean, Eduardo Maura buru duen behin-behineko zuzendaritza taldea aurkeztu dute astean. Talde horrek abenduaren 20ko Espainiako hauteskunde orokorrak izango ditu jomuga eta urtarrilean kongresu baten aukeratuko dute zuzendaritza berria.



Udal ordezkariak eta herritarrak Arrasateko Herriko Plazan. | AMAIA TXINTXURRETA

## EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOA

Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren Aditu Tituluko gogoeta eta eztabaida-saioak egin ditu Mondragon Unibertsitateak. Hauxe da saioetako baten laburpena.

# Mina eta grina

JON BEREZIBAR | ARRASATE

**#Deserria**-ren presentzia politikoa eta poetikoa; **#erbestea**, era berean, ulertu nahi eta ezin duenaren kokapen gisa ere. 1936ko gerrak ezarritako **#exilioa**-n begirada jarrita, Larraitz Ariznabarreta irakasleak "transizio deitu izan zaion horrek" eragin dituen **#hausturak** agerian jarri gura ditu: **#Akulturazioa**-k beti dakar **#umertz** tentsazioa". Transmisioak **#mina** ere jaso behar duela dio Miriam Luki eta gauza asko esaten direla **#esangabekotan** ere, Ixiar Rozasek. Hitzei **#esanahi** berriak ematearen jarra politikoa aldarrikatzen du Rozasek eta gailen dezala **#ahotsa**-k **#hitza**. "Zergatik sinistu behar dut kontatzen didaten guztia?", galdetzen du.

### Minaren ifrentzuan

Sorkuntzaren poza, beste aldean. Lasartetik, Asier Sotak, Joxe Mari Agirretxek eta Maider Oartzabalak herria dantzan, kantuan, antzeztan jarri dute. **#Gozamen**-etik zabaldu dute euskalgintzaren poza eta emoziotik osatu dute **#komunitatea**. Militantziatik ekin ziotenek ere, azkenean, **#plazera** aurkituta jarraitu zutela dio ziur Edorta Jimenezek eta inori **#zama**-rik ez uzteko dei egiten du. Gozamenarekin batera, beste gatorik egotekotan, **#aitortza** da, Maider Oartzabal dantzariak nabarmentzen duenez, norberarenaren **#ispilu** lana egiten duelako.

### Proiektua

Sormenik, ordea, ez dago **#tentsio** barik, "hotzaren eta beroa-

ren artekoa", Irati Jimenezek dioen bezala, eta tenk egiten da ardatz askotan. **#Indibidua** eta **#kolektiboa**, batetik. Josu Zabalak esperientzia kolektiboaren ahalmen eraldatzaileak hitz egiten du eta zelan geroago eta zailagoa den belaunaldi berrientzat horren mamia jasotzea. Transmisio **#ereduak** eta modua, **#ongizatea**, aipatzen ditu Maider Oartzabalak, sentitzea. Begirada inguru osora zabaldua, aldiz, **#ProiektuKulturala** badagoen da Josu Zabalen ardura, eta balego, lukeen **#zentsua** Ander Lipusen galdera. **#Sentitu** lehenik, gero **#sinistu** beharko dena.

### HITZALDI OSOA IKUSTEKO:

Goiena telebista | Eguena, azaroak 19, 22:00.



Irati eta Edorta Jimenez, Ander Lipus, Josu Zabala, Ixiar Rozas, Larraitz Ariznabarreta, Asier Sota, Joxe Mari Agirretxe, Maider Oartzabal eta Dabid Egizabal eta Miriam Luki. | GOIENA

### Telebistako saioaren babeslea



## LABORAL KUTXAREN GAZTENPRESA EKINTZAILTZETA PLANA

25.000 €-rainoko finantzaketa, abalik gabe



Finantzaketa honek Europar Batasunaren laguntza du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1296/2013 zenbakidun Araudian (EB), Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europar Batasunaren Programari ("EaSI") buruzkoan, jasotakoaren arabera ezarritako berme-tresnaren esparruan. Berme hau Europar Batasunak finantzatuta dago, Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Programaren ("EaSI") esparruan.





## ZABALIK

XABIER MUGARTZA  
goiena.eus/komunitatea/



## Udal erretratu ahaztuak

Oñatiko Gaztetxeak azarorako antolatu duen formazio tailerren informazioa kalean ikusi ondoren, Eusko Jaurlaritzak egindako Oñatiko udal erretratu irakurri dut, tailer horietako bat beronen irakurketa kritikoa egitean sustatzen baita.

Jarrera kritiko eraikitzaileak gizartea hobetzeko beharrezkoak ditugun heinean, ongietorriak horrelako jardunak. Nik neuk, artikulu hau publikatzeko datak lagunduta, kontraste bezala erabili daitekeen idatzi honi ekin diot.

Erretratuak erakusten digun lehenengo ezaugarria herri honetan bizi izan dugun egoeraren krudeltasuna da, hildakoen adina eta atzean utzi duten guztia ikusita.

Bestalde, dokumentua irakurri ondoren, galdera bat luzatuko nuke: bertako zenbat izen errekonozitzen ditugu? Ba al dakigu nortzuk ziren? Ba al dakigu batzuen familiakoak, Oñatin bizi direnak, nortzuk diren?

Egoeraren deshumanizazioa itzela izan da eta honen seinale da hamarkada luzetan ahaztu egin ditugula, ikusezin bihurtu ditugula. Tailer hauek aukera ederra izan daitezke hauek guztiak gogora ekartzeko.

Oker egon naiteke, baina susmoa hartzen diot euskal gaztedia, kartzelan egon direnak... horrelako gai ez hutsaletan zentratuko direla tailer hauek. Nire ustetan, gai horiekin batera bere tartetxoa ere beharko lukete gure herrian beraien bizia mehatxatua ikusi duten hainbat herritarrek bizi izan dituzten egoerek, bizkartzain eta guzti ibili behar izan duten herritarrenek, hain zuzen ere.

Aurrera begira, enpatia ariketa itzela behar dugu egin gizarte kohesionatua izan nahi badugu, batik bat norberak pentsatzen duenaren aurkakoa pentsatzen duenarekiko, beraienganako izan dugun jarrerarekiko hausnarketa kritikoren bidez.

Ikusmira zabaltze aldera.

### Tartetxoa beharko lukete beraien bizia mehatxatuta ikusi dutenek

## USTEAK USTE

IBAN ARANTZABAL | iarantzabal@goiena.eus

## Molde berriak eta freskoak

Arantza Santestebani entzundako hitzek eman didate zer pentsatua. Bera ezkeraren antolakundeez-eta ari da, baina nik euskalgintza izan dut buruan: erakundeak berri behar dira, ez zerotik hasiz, hala ere. Nondik gatozen, zein estrategia ditugun... horietatik abiatuta. Diskurtso politikoaz dio behar dugula haize freskoa. Euskalgintzatik halatsu bizi dut nik. Eta jendea konbokatzeke ohikoak diren jokamoldeez –turuta bidezko deiak-eta-? Gutxienez, zalantza sortzen dutela aitortu beharko dugu. Santestebanek dioen moduan, "argudioak behar dira, behar da informazioa eta bereziki hartzailea ez dela pasibo hiperideologizatua ulertzea".

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



## GUTUNAK

## Iruña-Veleia, 7 urte

Maite Larrañaga  
Bergara

Datorren eguean, azaruaren 19xan, 7 urte beteko die Arabako Diputaziñuak Iruña-Veleiako aztarnategixa itxi eta Eliseo Gil eta bere lantaldia baztatu zittuala, bertan aurkittutako grafituak faltsutzat jota.

Diputaziñuak berak izendatutako aditu taldia izan zan aurkikuntzok faltsutzat jo zittuana, eta hedabidien laguntzaz badirudi jende asko iritzi horrekin gelditu zala buelta gehixau emoteke.

Baina ez dago gaixan asko sakondu biharririk egindako aldreskerixez konturatzeko, eta kontutan hartzekua be bada badala nazioarte mailako beste aditu talde bat aurkikuntzen benetakotasunaren alde egin dabena.

Ezohiko aurkikuntza honek benetakuak izanez gero, oso haundixa litzake altxorra gure

ondare, kultura, hizkuntza, nortasun eta seme-alabendako, eta horregatik jendia animauko neuke, beste edozein gaikin bezela, komunikabidietan esan edo esan ez danaz gain, ikusmira zabaldu eta gaixan gehitxuau sakontzera.

Eta benetakotasun edo faltsutasun hori behingoz zehazteko, biharrezko azterketa, ikerketa eta analisisak egitteko eskaera luzatzia nahiko neuke, SOS Iruña-Veleiak bere web orrixan daukan manifestuakin bat egiñez.

Bestalde, biharrezko froga horrek egin eta kontrakua definitiboki demostratzen ez dan bittartian, Eliseo Gili eta beste kaltetuei nere elkartasuna adieraztia nahiko neuke.

Eta azkenik, Juan Martin Elexpuru, SOS Iruña-Veleia eta etsi ez eta sinisten daben hortan lanian jardun daben lagunei eskerrak emotia nahiko neuke.

Beste barik, danok animau eta ezagutu gure harribitxia, eraiki zure iritzia!

## Olle Johansson

Josu Garitaonandia

(Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren arduraduna)  
Bergara

Medikua eta Stockholmeko Karolinska institutuko neurozientifiko horrek eta bere lantaldeak 30 urte baino gehiago daramate aztertzen osasunean erradiozioak duen efektua. Zalantzarik ez dauka argindar lineak, mugikorren antenak, wifia... kaltegarriak direla osasunarentzako.

Suediak onartu zuen elektrosensibilitatea lan gaixotasun bezala, bere baja fisiko eta guzti. Aurrerapauso galanta izan zen, ordura arte elektrosensibilitateak eragindako gaixoak ia zorotzat hartzen baitzituzten; Suedian kasu larrienen euren etxeak babesteko laguntza publikoa dute, etxeak pantailatzen dituzte erradiozio horietatik babesteko.

Suedia eredu bihurtu da, baina hemen ez da jarraitzen eredu hori: eskoletan eta liburutegietan umeak ordu larregi egoten dira wifi erradiozio artean.

Karakterek, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharreak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Oñatiko Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea  
Oñatiko Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre

**Zuzendaria** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Erredaktore burua** Ubane Madera

**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo.

**Publizitatea** Mireia Larrañaga,

Amalia Mundiniano, Ziertra Martin,

Imanol Elortza

**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.

**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain,

Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**

Arrasate 20500

Oñatiko Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**

Arrasate 20500

Oñatiko Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

publi@goiena.eus

**HARPIDETZA**

Arrasate 20500

Oñatiko Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014

**ISSN:** 2174-369X

**Tirada:** 18.850 ale

**Difusioa:** 18.507 ale



Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# HERRIAK

## Leintz Gatzaga artisauen topaleku San Milixan azokaren 23. aldian

- ▶ Etzi, domeka, 10:00etan hasi eta 14:30ak arte hamasei saltoki-erakustoki izango dira
- ▶ Udal Pilotalekuan eta plazan egongo dira artisauak; lau dira Gatzagako bertakoak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Kosmetika produktuak, larruz landutakoak, harriz egindakoak, bitxiak, euskal zeramika, jostailuak, arropak, panpinak... Borobilduz eta laburbilduz, eskuz eta mimoz landutako produktuak jarriko dituzte etzi, domeka, Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako hamasei artisauk Leintz Gatzagako pilotalekuan eta plazan, urtean behin egiten duten hitzordura batuta: San Milixan azokara.

10:00etan hasi eta 14:30ak arte izango da hori guztia ikusteko aukera. Eta, horiekin batera, bestelako osagarriak eskainiko dizkiete gatzagarrek bisitariari. Horiek eskualdekoak izango dira: Leintz Gatzagako bertakoak eta Antzuolakoak.

**Talo tailerra eta forja artistikoa**  
Horetako bat da forja-lanketa edo, zehatzago esanda, erremontaritzako artistikoaren erakustaldia egingo duela plazan Gatzagako Sualai enpresak. "Sutegia muntatuko du ikatzarekin eta bertan egongo da mailuari jotzen, pieza batzuk eginez", esplikatu du Joannes Mendizabalek, Leintz Gatzagako Kultura zinegotziak.

Beste bat da urtero taloak egiteaz arduratzen den Sorginak Emakume Taldeak gaztetxoendako talo-tailerra antolatu duela Gurel guraso elkartearekin elkarlanean; 11:00etatik 13:30era. "Nahi duenak etorri, bere taloa egin eta jan egin dezake", esan du Kultura zinegotziak.



Ezkerretik: Ayane, Amaiur, Zura, Lur, David eta Goreti (umeak) eta Eneritz irakaslea. | UM



Otsoa, Bahamontesen maillotarekin. | UM



lazko San Milixan azoka. | JA

### Gatz fabrikako lekukotza

Kultura etxean da aparteko beste hitzordu horietako bat: Leintz Gatzagako ikurra den gatz fabrikatik -orain museo- lanean jardundako Teodoro Plazaola 90 urteko gatzagarraren testigantzarekin landutako 10 minutuko dokumentala proiektatutako da, 10:00etatik 14:00ak arte, etengabe.

Gatz Museoarekin jarraituta, bisita gidatu bereziak eskainiko dituzte San Milixanen bueltan, 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan. "Bisitarekin batera, bisitariak jasoko dute gatz potetxo bat, oroi-garri", azaldu du Mendizabalek.

Eta euskal artisauen azoka aberastuko du, baita ere, Anelkarrak, Antzuolako gobernuak kan-

poko erakundeak, bidezko merkataritzako produktuak jarrita.

### Dorletako Ama elkarte

Domekan izango diren stand-arteetan, dena den, izango da artisauekin zerikusirik ez duen erakustoki bat: Dorletako Ama Txirrindulari Elkartearena.

Helburu bikoitzarekin jarriko dute postua: dirua batzea eta elkartearen altxorak partekatzea. "Diru laguntzak murriztu egin dira urteotan, baina ez gastuak. Horiek etengabe garestitzen dabilta -aseguruak, txirrindularien kuotak...-. Guk urtean bi lasterketa antolatzen ditugu: uztailekoa -mendiko bizikleta martxa- eta irailekoa, herriko jaien bueltan. 5.000-6.000 euro behar ditugu horiek antolatzeko. Hala, iaz txartelak saltzeko aprobetxatu genuen San Milixan eguna, eta aurten ere hala egingo dugu. 300 euroko balioa duen Gabonetako otarrea zozkatuko dugu sari nagusi modura -Gabonetako loteriarekin batera- eta bi lagunendako otordua Gure Ametsa jatetxean, berriz, bigarren sari modura", esplikatu du Alberto Altubek, Dorletako Ama Txirrindulari Elkartearen kideak.

Elkartearen altxorrei dago kienez, txirrindulari mitikoen maillot mordoak erakutsiko dituzte azokan, urteetan Dorletako Amari eskaintzan laga dizkiotek, gehienak Arlabanen laga ere: "Indurainena, Lejarretarena, Bahamontesena, Olanorena, Alonso arrasatearrarena... Ikusgai jarriko ditugu, baita ere, antola-

tzen dugun mendiko bizikletako lasterketaren azken 14 urteotako kamisetak. Bestalde, iaz jarri genuen egurrezko bizikleta bat, eta emakumezkoen beste bat, antzinakoa".

### Bizikleta erraldoia

Hori, baina, elkartearengandik etorriko den ekimen "ohikoa" da. Izan ere, San Milixan azoka baliatuko dute Dorletako Ama Txirrindulari Elkartearen kideek hilabeteotan lantzen diharduten aparteko ekimen baten berri emateko. "Tourmalet-eko tontorrean jarrita dagoenaren moduko bizikleta erraldoi bat jarri gura dugu, eta haren ondoan iturri bat, txirrindulariendako. Bospasei metro inguruko eskultura izango da. Bagabiltza lantzen, baserri batean. Eta kokalekua ere aztertzen gabiltza. Hasierako asmoa zen Dorletako Amaren beraren parean jartzea, baina, segurtasun kontuengatik, Gipuzkoako Diputazioak eragozpenak jarri ditu. Eta orain gabiltza aztertzen Benta Fria inguruan jartzea", esan du Alberto Altubek.

### Autobusa doan

Gatzagarrek egin dute, bada, domekarako hitzordua. Bisitarien etorrera errazteko eta are erakargarriago egiteko, gainera, Leintz Gatzagako Udalak autobusa doan jarriko du, ordu erdiko maiztasunarekin. 10:00etan aterako da lehenengoa Eskoriatzatik eta 14:30ean jaitsiko da Leintz Gatzagatik Eskoriatzara azkeneko autobusa.



RPS: 207/12

CLINICA DENTAL  
BERGARA

Hortz-inplanteetan espezialistak gara!

Bidekurutzeta, 36 - BERGARA • Tel.: 943 76 05 77  
www.clinicadentalbergara.es



Eneko Barberena | EH Bilduko bozeramailea

## "Metodologia okerra planteatzen du Udalak gaiak lantzeko orduan"

Orain artekoaren "kontrakoa" egin behar dela dio: "Lehenengo, debatea zabaldu; eta gero, adostu"

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Agintaldi berriak bost hilabete eskas bete ditu, eta EH Bilduk orain arteko udal politikaren balorazioa egin du lehen aldiz. Koalizioko bozeramaile Eneko Barberenak (Arrasate, 1983) hainbat gabezia ikusten ditu orain arteko Udalaren jardunean.

**Nola ikusten duzue, oposiziotik, Udal Gobernuaren kudeaketa?**

Uste dugu metodologia okerra ari direla planteatzen gaiak lantzeko orduan: lehenengo, Udalean erabakiak hartu; eta gero, gizarteratu. Garbiketarako ordenantza da horren adibide bat; izan ere, planteatzen den egutegian udal barruko debatea aurreikusten da gero ordenantza onartzeko. Metodologikoki horren aurka gaude; uste dugu herritarrak, orokorrean, eta kalea komunikatzeko bitarteko moduan erabiltzen duten eragileak, bereziki, entzun egin behar direla. Horrek estilo bat markatzen du; are gehiago, delikatuak diren gaietan. Izan ere, ordenantza horrek bete-betean egiten du talka adierazpen askatasunarekin. Ez gaude gaia lantzearen aurka, baina uste dugu kontrakoa egin behar dela halako gaietan, herritarren artean debatea zabaldu lehenengo, eta gero, adostasun bat dagoenean, ordenantza onartu.

**Zergatik ez zarete Oroimenaren Eguneko ekitaldian egon?**

Duela hiruzpalau aste galdetu genion alkateari Memoriaren Egunaren harira ea zerbait egin behar genuen eta esan zigun ez zegoela tarterik gaia lantzeko. Horren ostean, egubakoitzean heldu zitzaigun martitzenerako deialdia, Jaurilaritzaren ekimenez udalei deitua. Orain bertan ez dakigu frankismoan fusilatutako pertsona baten biloba bati haren aitajauna biktima den erantzuten, Josu Urribetxeberriaren sendia badatorkigu ere ez dakigu galdera berari erantzuten... Martitzenekoa moduko ekintzen norabidearekin bat gatoz, baina aurretik lanketa bat egin behar da. Bi proposamen zehatz egin ditugu: lantalde bat sortzea eta lantalde horren jarduna 2016ko aurrekontuan islatzea. Udalak kaltetuei, adituei eta memoria lantzen diharduten eragileei entzuten dienean, udaletxean gaiak merezi duen entitate hartzen duenean, gu ere elkarretaratzean egongo gara.

**Parte-hartzea lantzen dihardu Udal Gobernuak. Zein da zuen iritzia?**

Kezkatuta gaude parte-hartzearen kontzeptuak izan dezakeen garapenearekin. Arrasatek orain arte izan duen parte-hartze prozesu sakonena eta beteena, azokarena, egun batetik bestera suntsitu zuten. Eta gu prentsatik enteratu ginen.



Eneko Barberena, asteon. | J.B.

Hortaz, imajinatzen dut prozesuan parte hartu zuten eragileak ere modu berean enteratu zirela. Alkateak esan zigun EAJ kanpainen proiektu horren aurka agertu zela, baina uste dugu desadostasuna beste era batera kudea zitekeela. Zer gutxiago, inplikatu zuzenean komunikatu eta erabakiaren gaineko iritzia entzutea baino.

**Arrasate pasealekuaren harira kezka azaldu zenuten osoko bilkura baten.**

Jabe gara aurreko agintaldian ez genuela gaia ondo kudeatu. Ez genituen gauzak ondo egin edo ez genuen ondo komunikatzen jakin. Ezinezona egon da, eta sinadura bilketa batekin islatu zen. Baina gero, erabakiak Gobernuak hartu ditu, eta ez dakigu ze punturaino modu antolatua baten entzun den inplikatu guztien iritzia. Sinatu ez zuten beste kaltetu batzuk ere egon ziren eta izango zuten zer esan.

**Udaleko jardunean euskarak duen lekuaz ere kezkatu zarete. Zergatik?**

Udalbatzak bi zinegotzi elebakar ditu, horietako bat bozeramailea. Horrek eta mozio batzuk gaztelania hutsez aurkezteak eragin du hasierako osoko bilkuretan gaztelaniak pisu nabarmena izatea. Bozeramaileon artean gaia tratatzen ari gara, neurri zuzentzaileak planteatu dira: mozioak euskaraz irakurtzea, gaztelaniazko diktamenak euskaratzea... Alkatearen jarrera ona da gaierakiko, baina batzordeetan zorrotasuna eskatzen dugu euskararen erabilera plana betetzeko, Udaleko hizkuntza euskara izan dadin.

**Ze harreman duzue taldeen artean?**

Gehienok berriak gara, eta, oro har ona da, baina oraindik erakitzeke daude; orain arteko lana gutxietsi barik, gai potoloenak lantzeke daude. Ikusiko da.

**"Udaleko hizkuntza euskara izatea nahi dugu, erabilera plana zorrotz betetzea"**



Udal Teknikariak eta alkatea atzo goizean pasealekuan. | JOSU BILBAO

## Gaurtik zabalik da Arrasate Pasealekua

Oinezkoek lehentasuna dute eta ibilgailuek ezin dute 30 kilometro orduko muga gainditu

JOSU BILBAO | ARRASATE

"Ikusten dugu ia-ia bukatuta dagoela eta segurtasun neurriak guztiz betetzen direla; beraz, irekiko da bi zentzuetan. 30 kilometro orduko izango da gehien-go abiadura eta garraio publikoak erabili ahal du pasealekua, autobusek-eta... zerbitzu publikoa ematen duten ibilgailuek, baina zama astunek beste bide batetik joan beharko dute".

Ezaugarri horiekin iragarri zuten atzo, eguena, Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak

Arrasate pasealekuaren behin betiko irekiera, gaur (egubakoitzea) gauzatuko dena, zortzi hilabetez kalea itxita eta obretan egon ondoren.

**Bidegorria, geralekuak...**

Pasealekua zabaltzeaz batera, bertan egokitutako bidegorria ere erabilgarri da gaurtik.

Horrekin batera, noranzko bakoitzerako autobus geltoki bana ezarri dute bertan -atzo zebiltzan, adibidez, geltokietan azken ukituak egiten-, eta, horiez

gainera, bizikletak aparkatzeko hiru gune ere sortu dituzte. Gainera, 22 eserleku jarriko dira.

Obra osoaren kostu totala 1.260.000 euro izan da, gutxi gorabehera.

**Zubian ezustekoa**

Luze joan da pasealeku horren egokitzapen obra: zortzi hilabete, esandako moduan.

Bada, luzapen horren arrazoiak, edo, bestela esanda, obraren atzerapenaren gainean Ubarretxena alkateak adierazi zuen Aramaio erreka zeharkatzen duen zubian izandako ezustekoaren ondorioa dela.

Zehazki, zutailean konturatu ziren teknikariak zubiaren espaloaren alde bateko estruktura guztiz hondatuta zegoela, eta estruktura berria jarri behar izan da segurtasun neurria bermatzeko.

**Gune berria oinezkoendako**

Kontuak kontu, oinezkoek beste gune bat irabazi dute Arrasaten, ezohiko eremuan, alde zaharra ez den eremu batean, alegia, eta oinezko asko dabilen gunean, gertuan dagoen unibertsitatearengatik. Eta pasealekuaren nortasun hori azpimarratu zuen alkateak: "Argi eta garbi ikusiko da oinezkoek lehentasuna izango duen gunea izango dela, eta, horregatik, ibilgailuak pasatu ahaliko dira, baina segurtasun neurri jakin batzuekin: 30 kilometro orduko gehieneko abiadurarekin".

Inspirazioak gida zaitzala

**DS 4 berria**

DS AUTOMOBILES  
SPIRIT OF AVANT-GARDE

DS 4 berriaren barruan, orekara, edertasunera eta diseinura bidaia egingo duzu. Potentziaren eta dotoretasunaren arteko konbinazio perfektua ezagutuko duzu, eta detaile txikiez gozatzen ikasi. Zure desioetan inspiratuta, DS 4 berriarekin gidatzearen benetako plazera bizi izango duzu.

**DSk nahiago du TOTAL**

Batez besteko kontsumoa (l/100 km): 3,7-5,9

[www.driveDS.es](http://www.driveDS.es)

# TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22



# Gorostizako parkea nola estali erabakiko dute arrasatearrek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak haurrendako jolas parkeak estali gura ditu, eguraldi txarrekin umeez non jolastu izan dezaten. 2011n eraikitako Gorostizako parkea izango da lehena: "Auzo batetik hasita erabaki genuen, ekimen gehienak erdialdetik hasi ohi dira-eta", dio Maria Ubarretxena alkatea. Prozesu parte hartzaile baten bidez aukeratuko dute arrasatearrek parke hori nola estaliko duten. Haurren eta gurasoen ekarpenak jaso zituzten lehen fasean, eta orain, bigarren fasean, herritarrek sei aukeraren artean erabaki beharko dute.

**Azken orduak parte hartzeko**

Parte hartzeko hiru bide ireki ditu Udalak: Erguingo herri eskolan bertan kutxa bat jarri dute, eta BAZen eta Udalaren webgunean ([www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)) ere eman daiteke botoa; webgunean azaltzen dira proiektuaren xehetasun guztiak. Parte hartzeko baldintzak dira adin nagusikoa izatea eta Arrasaten erroldatuta egotea; botoa ematerakoan, nortasun agiriaren zenbakia eman beharko da, pertsona batek boto bakarra emango duela ziurtatzeko. Botoa emateko azken eguna bihar izango da, hilak 14, 13:00ak arte.



Maria Ubarretxena alkatea eta Udaleko bi teknikari Gorostizako parkean. | J.B.

## TXALOK ETA TXISTUAK



GOIENA

### Kataideko gunea, "gutziz utzita"

Herritar batek salatu duenez, Kataideko industrialdea "gutziz utzita" dago azkenaldian: "Ez dago argiteria nahikorik, gaeuz oso ilun dago. Gainera, industrialde barruko errepidean lau zulo erraldoi daude konpontzeke [horietako bat ondoko argazkian] eta ez da inor etortzen zarama jasotzera".



GOIENA

## NIRE USTEZ

NEREA  
MAKAZAGA



### Urtaroen joan-etorria

Aspaldi, denbora gehiegi egia esan, ez naizela udazkenak urrez eta gorritz jantzitako mendi edo baso batera gerturatu. Baina badirudi azken asteotan indarrez piztu zaizkidala gogoak. Etxeko leihotik bestaldera begira, hego hai-

zeak dantzara gonbidatu dituen adaxkek hosto horizkatuak aire-ratzen dituzte, hauek ere dantza lagun bihurtuz.

Eta harriduraz ohartu naiz azaroa espero baino lehenago iritsi dela, urtaroak espero baino azkarrago joaten-etortzen direla, eta denbora gehiegi pasa dela haur ginen garai haietatik, hostotan elkar lurperatzera jolasten genuenetik, nekearen nekez orbelean etzanda arnastetuka atseden hartzen genuenetik.

Jolasteko grina hori hostoak dantzara daramatzen haize berberak eraman ote zidan galdetu diot nire buruari. Edota leku

berera bueltatuta grina hori bertan topatuko dudan.

Udazkenez jantzitako leku batera gerturatu nahi nuen pasa den asteburuan, azken asteotako gogoak bete-betean, aisialdiaz gozatzeko aukera aprobetxatuz haur garaiekin bat egiteko... Baina ideia hau buruan nintzela, ezustean, udak topatu ninduen bidean, bainujantzia kotxeiko izkina baten nahita ahaztuta baneuka bezala. Eta horrela, Zumaiako hondartzan amaitu nuen, hondar gainean erdi lo etzanda, lainorik gabeko zeru bati begira. Udako egunei azken besarkada lapurtu guran.

Husqvarna

ESKAINTZAK

UDAZKENA 2015

Motozerrak

199 €-tik  
aurrera



Husqvarna  
zerbitzu tekniko ofizial berria

ZUBI-LAN

Markulete Pol. Ekutio kalea, 4-17 • ARRASATE

T/F: 943 79 78 82 • M: 650 038 733 • [jmabizeta@gmail.com](mailto:jmabizeta@gmail.com)

Tersnak  
Nekazaritza  
Lorezaintza  
Basogintza

Motorrak  
Salmenta  
Konponketa





Jon Barandiaran ateratzen jaurtitzen, artxiboko irudi baten. | IMANOL SORIANO

## Inoiz baino talde gutxiago Zaldibarko txapelketan

Bederatzi talde egon arren, hilaren 17ra arte aukera dago izena emateko: "Baliteke azkena izatea", diote

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE  
Zaldibarko Areta Futbol Txapelketa hasiko da aste bukaera honean, inoizko parte-hartzerik baxuenarekin: "Pena bat da. Gazteek ez dute izenik eman eta oraindik jokatzeko jarraitu gura duten beterranoak geroago eta gutxiago dire-

nez, talde batzuk batu egin dira. Talde berririk ez dago oraingoz", adierazi du antolakuntzako Mikel Viguerak. "Oraingoz" dio, antolakuntzak erabaki duela izena emateko epea hilaren 17ra arte zabaltzea: "Taldea batek deskantsua hartuko duenez beste talde batek

### 1. JARDUNALDIA

**PARTIDUAK**

**AZAROAK 14, ZAPATUA**  
 11:00 Aldatz-Betrayer / Abokajarro  
 12:00 Abokajarro-Dribling / Betrayer

**AZAROAK 15, DOMEKA**  
 11:00 Lasagabaster-Sonografos / Monte tab.  
 12:00 Monte taberna-Rayo Makabro / Lasaga.

izena ematen badu ondo koadratu dezakegu. Eta talde gehiago aurkezten badira ere ez dago arazorik, helburua da ahalik eta talde gehien egotea".

**80 talde izatetik, bederatzira**  
1990eko hamarkadan 80 talde zituen txapelketa bat bederatzira talde izatera pasatu da azken urteetan: "Ez dugu halakorik nahi, baina, joera ikusita, baliteke aurtengo azkena izatea. Azken urteetan antolakuntzan aritu garenok urte urte gauza berberak egin ditugu; antolakuntzakoon lana hobea izan daitekeela? Seguru baietz". Edozelan ere, antolatzaileek jende berria behar dutela esan dute askotan, baina ez dute laguntza handirik jaso izan.

## Zarzuelarako sarreraren salmenta, abiada bizian

**J.B.** | ARRASATE  
Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak azaroaren 21ean (19:30), 22an (19:30), 27an (20:00) eta 28an (19:30) taularatuko du *La alegría de la huerta* zarzuela. Ikusle aldetik, behintzat, bermatua du arrakasta; izan ere, azaroaren 2an publiko zabalari sarrerak salgai jarri zirenetik saldu dira gehienak ([www. arrasate.eus](http://www. arrasate.eus)); lau emanaldietarako, goiko ilaretako eserlekuak bakarrik geratzen dira.

Federico Chuecaren musika eta Antonio Pasoren eta Enrique Garcia Alvarezen libretoa du aurtengo zarzuelak eta Tere Gonzalez zuzendari orokorrak lau kantu gehitu dizkio obra originalari. Bi ordu iraungo du, atsedendia barne, hiru zatitan banatutako ekinaldi bakarrean.

## Parte-hartze libreko atletismo probak bihar Mojategin

Gipuzkoako Atletismo Federazioak parte-hartze libreko probak antolatu ditu biharko Mojategin. 10:00etan hasita, emakumeendako luzera jauziak eta gizonezkoendako luzera eta altuera jauziak izango dira; Istar Dapenak eta Eneko Carrascalek hartuko dute parte. Hilaren 28an beste jardunaldi bat izango dute.

## 'Berdean Hezi' liburua aurkeztuko dute gaur Kulturaten (18:00)

Naturak heziketan duen "garrantzi handia" aintzat hartuta, Txatxilipurdik Heike Freireren *Educar en Verde* liburua euskaratu du; gaur aurkeztuko dute, Kulturaten (18:00). Freire bera ere egongo da eta ondoren solasaldia egingo dute adituekin eta proiektuan parte hartu duten eragileekin. Tailerra ere egingo dute Monterronen (17:00-19:00).

## Felix Arriaran hil da, herriko pilotaren urrezko aroaren azken ordezkarietako bat

**X.U. / J.B.** | ARRASATE  
Felix Arriaran hil zen azaroaren 10ean, 91 urterekin (Arrasate, 1924). Pilotan Arriaran I.a moduan zen ezaguna. Haren anaia Pacorekin eta Joxerekin jardun zuen pilotan, baina azken hura izan zen kirol ibilbide oaroen izan zuena. Urte bakarrean galdu ditu Arrasate Arriaran anaiaietako bi. Izan ere, otsailean zendu zen Joxe Arriaran, Arra-

sateko pilotari nabarmenetakoa. Felixen ibilbide profesionala ez zen anaiarena bezain oparoa izan, osasun arrazoiengatik pilota utzi egin behar izan zuen-eta, baina Arrasateko pilotaren urrezko urteetako ordezkarietako bat izan zen, Arriaran anaiekin batera Eugenio Bolinagak edota Santi Etxebarria *Zurdo de Mondragón*-ek partekatu zutena. Goian bego.



Arriaran anaiak, 1955ean, Eratsunen (Nafarroa). | EUSKOMEDIA

## Arrasate Musikalek kontzertua emango du etzi musikarien zaindariaren omenez

Santa Zezilia dela-eta urteroko kontzertua: San Frantzisko elizan, 12:30ean

**J.B.** | ARRASATE  
Ohitura denez, Arrasate Musikaleko bandak kontzertua eskainiko du Santa Zeziliaren omenez. Domekan izango da, San Frantzisko elizan, 12:30ean. Sarrera doakoa izango da eta Mikel Markiegi zuzendariaren aginduetara bost pieza joko dituzte: Alfredo Javaloyes-en *El Abanico*, Soutullo y Vert-en *La leyenda del beso*, J.Mejj-en *The phantom of the opera*, Naohiro Iwai-ren *American Graphity* eta A. Norwing-en *El último Mohicano*. Bandako tronboi jole Mikel Muxikari eskainiko diote kontzertua. "Animo asko, Mikel!", adierazi dute.

Era berean, Arrasate Musikaleko txistulariek Aramaio Gantzaga auzoko jaietan kontzertua eskainiko dute. Gantzagako elizan izango da kontzertua, 11:00etan hasita.



Arrasate Musikaleko bandaren entsegua, Monterron jauregian. | ARRASATE MUSIKAL

### Aprendices eraikina jomuga

Agintaldiko proiektu estrategikoen artean dago Musika Etxea -Goikobalurekin batera- Aprendices eraikinean egokitzea. Azken osoko bilkuran onartu zen 20.000

euroko kreditu aldaketa, proiektua idaztera bideratua. Jaurarlitzako SPRIrena da eraikina, baina, alkatearen arabera, "aukera handiak" daude jabetza aldatu eta proiektua gauzatzeko.

DACIA

Izan ARGIA. Eros ezazu Dacia bat.

Dacia Sandero

6.300€-tik aurrera<sup>1</sup>

5 urteko<sup>1</sup>

BERMIA

www.dacia.es / 91 506 53 59 | Ikus ezazu zure Renault-Dacia kontzesionarioan.

LIDERRAK PARTIKULARREN MERKATUAN

Dacia Sandero berria: kontsumo mistoa (l/100km) 3,8 eta 5,8 bitartean. CO2-aren isuria (g/km) 90 eta 130 bitartean.

AUTOBERRI San Andres, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE - MONDRAGÓN www.autoberri.com





Martitzenean San Martin plazan egindako agerraldia. | M.T.

## "Bizikidetzaren sustatzeko konpromisoa" hartu du Udalak Oroimenaren Egunaren bueltan

Udalbatzak aho batez onartu zuen, osoko bilkuran, egun horrekin lotutako adierazpen instituzionala

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Oroimenaren Eguna deitua zuen Eusko Jaurlaritzak martitzenerako, azaroak 10. Horren harira, elkarretaratzea egin zuten arratsaldeko zazpitan San Martin plazan. Berrogeita hamar pertsona inguru batu ziren bertan. Ordu laurden pasatxoko isilunea egin

zuten, "giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktima guztiak" omentzeko.

Isilune horren ostean, Juanje Alberdi alkateak hartu zuen hitza, eta egun horretarako bereziki idatzitako testua irakurri zuen plazan bildutako jende guztiaren aurrean.

**Bizikidetzarako konpromisoa**

Alkateak irakurritako testu horretan ondorengoa aipatzen zen: "Giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktima guztiak zor diegu egia, justizia eta erreparazioa eta gertatutakoa ez errepikatzeko bermea. Egindako mina aitortuz", giza eskubideen

errespetua "beste edozein kausa edo ideia politiko eta estatu arrazoiaren gainetik" dagoela dio idatziak. Horrekin batera, Udalak "giza eskubideen kulturaren eta elkarrenganako errespetuan eta onspenean oinarritutako bizikidetzaren sustatzeko konpromisoa hartu du.

**Udalbatzaren atxikimendua**

Astelehenean, azaroak 9, ezohiko osoko bilkura egin zuten udalbatzaren bueltan. Bertan, EAJ, EH Bildu, Irabazi eta PSE alderdiek osatutako udalbatzak aho batez onartu zuen alkateak proposatutako adierazpen hori.

Bilkuraren ostean, Juanje Alberdi alkateak nabarmendu zuen garrantzitsua dela bizikidetzarako konpromiso hori "denon artean" betetzea. Nabarmendu zuen martitzeneko elkarretaratzearekin ez dela "helburu bat lortzen", baizik eta "abiapuntu bat" izan behar zuela. Hemendik aurrera gai horren bueltan "gauza gehiago" egiten hasi behar dutela adierazi zuen. "Biktimei eta azken urte hauetan sufrimendua jasan dutenei elkartasuna" adierazi nahi izan zien Alberdik.

EH Bilduko ordezkari Agur ne Barrusok, berri, ezohiko bilkuraren ostean adierazi zuen gai horrek lanketa "sakona eta sentiblea" eskatzen duela: "Egia da Bergaran biktimen eta memoria-ren gaia ez dela batera landu, eta faltan sumatzen dugu esku artean planteamendu bat izatea, edo planteamendu batera heltzeko metodo bat".

## Kultura ekimenez betetako azaroa izango dute Osintxun, gaur hasita

M.T. | BERGARA

Azaroa Gaztañatan egitasmoa bueltan da, beste urte batez, Osintxun. Gaur gauean hasiko da egitaraua. 22:15ean, Txuringon, *Piano bat bertsoan* bertso musikatu saioa egingo dute. Joana Ortega arituko da abesten, Sebastian Ustarroz gitarran, Jagoba Astiazaran pianoan eta Beñat Gaztelumendi bertsoan. Inprobisazioan oinarritutako ikuskizuna izango da, eta ikusleen parte-hartzea ere ezinbestekoa izango da, haiek izango baitira gai-jartzaileak.

Domekan, berri, umeei zuzendutako Txatxilipurdiren tailerrak izango dira plazan, 12:00etatik 14:00etara.

Hurrengo asteburuan ere izango da zer egin Azaroa Gaztañatan-en baitan. Egubakoitzean, azaroak 20, antzerkia izango da, gauean, Txuringon. Domekan, erretiratuen bazkaria, toki berean. Astelehenean, hilak 23, Arimen Eguna egingo dute. Bukatzeko, azaroaren 29an, Poxpolo Ta Konpainia pailazoaren ikuskizuna izango da frontoian.

### EGITARAUA

#### AZAROAK 13

22:15 *Piano bat bertsoan*, Txuringo tabernan.

#### AZAROAK 15

12:00 Txatxilipurdiren tailerrak plazan.

#### AZAROAK 20

20:15 Txuringon, antzerki sorpresa.

#### AZAROAK 22

14:00 Erretiratuen bazkaria, Txuringon.

#### AZAROAK 23 (ARIMEN EGUNA)

19:00 Gaztainak eta sagardoa plazan.

21:00 Arimetako afaria.

#### AZAROAK 29

17:30 Poxpolo Ta Konpainia pailazoak, pilotalekuan.

**G**GAZTAINERRE

"Gaztainerre eguna" Azaroaren 13an ospatuko dugu Eskolan.

Arratsaldeko 16:00etan, ikasle eta irakasleok patioan elkartuko gara gaztainak jateko.

16:30ean, gure senitarteok ere izango dute aukera gurekin gaztainak jateko.

**San Martin Agirre herri eskola**

URKAN

## Hondakinen gaineko herri kontsultari buruzko informazioa emateko aurkezpena eguaztenean

Datorren eguaztenean, azaroak 18, Udalak aurkezpen bat egingo du hilaren 29an izango den hondakinen bilketa sistemaren gaineko herri kontsultari buruzko informazioa eskaintzeko. Arratsaldeko zazpitan izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Udalak herritarrei egin die aurkezpena joateko deia. Kontsulta horretan bi papertxo izango dira, asteleheneko ezohiko bilkuran onartu zuten: zuria, bosgarren edukiontzia aldea; eta laranja, atez atekoaren aldea.





Agorrosin kirolguneko gimnasioa. | GOIENA

## Agorrosingo %20ko prezio igoeraren aurkako plataforma sortu dute

Udalak esan du gaur egungo defizita "eutsiezina" eta herritar guztiendako "bidegabekoa" dela

M.T. | BERGARA

2016tik aurrera Agorrosin kirolguneko erabiltzaileei %20 igoko diete ordaindu beharreko kuota. Udalak erabaki hori hartu zuen, guneak eragindako defizitari neurri batean aurre egiteko irtenbide moduan. Orain, erabaki horren aurka dauden zenbait herritar erabiltzaile elkartu dira eta igoeraren aurkako kanpaina bat jarri dute abian.

Iban Biaga izan da mugimendu horren bultzatzaileetako bat. Hauxe esan du hark: "EAJ alkatetzan sartu zen esanez herriari hitza emango ziola, eta gero, egin duten lehenengo gauza herritarren poltsikoa ukitzea izan da".

Igoeraren aurka egiteko beste arrazoi bat, Biagaren arabera, Agorrosingo langileengan eragin dezakeen kaltea da. Esan duenez, "etxe batean gastuak murriztu behar badituzte, kenduko duten lehenengo gauza Agorrosingo abonua da"; horrek bertako langileen lanpostua arriskuan jar dezakeela esan du, haiengan "kalte zuzena" eragingo duela nabarmenduta. "Langileen atzetik ere hor daude haien familiak eta

haien ogia", gaineratu du.

Udaletik azaldu zuten, kuota igoera kirolgunearen defizitaren zati bati aurre egiteko ezarriko dute. Biagak uste duenez, arlo horretan Udalekoak "oso optimistak dira, uste baitute mundu guztiak orain arte bezala bazkide izaten jarraituko duela".

Sare sozialetan aktibo dabil-tza mugimendu berri horretako kideak, eta Facebooken orrialde bat ere sortu dute: *Agorrosin %20 Ez*. 130 kide baino gehiago ditu dagoeneko orrialde horrek.

### Sinadurak batzen

Udalaren erabakiarekiko desadostasuna adierazteko, sinadurak biltzen hasi dira plataforma herritar horretako kideak. Oraingoan, Bergarako 22 denda eta tabernatara eraman dituzte sinatzeko paperak, eta leku gehiagotara eramateko asmoa ere badute. Horretaz gain, atzo iluntzean, eguna, Irala kalean postua jarri zuten, pintxo-potea dela eta "jendea kalean dabilela aprobetxatuz".

Sinadura horiek batuz, euren asmoa da "Udalak atzera botatzea bai ala bai erabaki hori", Biaga-

ren esanetan. "Jendea gure alde dagoela ikusten da", diote herri plataformatik: "Jendea sinatzen ari da. Azkenean, herritarrekiko elkartasuna erakustea da asmoa".

### Udalaren erantzuna

Bergarako Udaleko Kirol zinegotzi Sabino Azkaratek adierazi du sortu berri den plataforma horretako kideak oraindik ez direla Udalarekin zuzenean harremanetan jarri: "Eskertuko nuke haiekin zuzenean egotea gure erabakiaren arrazoiak azaltzeko". Gaineratu du Udalean zabalik daudela "informazioa eskuratu nahi duen edozein herritarrekin hitz egiteko".

Udalaren arabera, tasaren %20ko igoerarekin "defizit osoa jaitsi egingo litzateke, 1.013.656 eurotik 839.656 eurora (-%17); nahiz eta oraindik handia izan". Oraingo defizita "eutsiezina" eta "herritar guztiendako bidegabekoa" dela dio Azkaratek. Gaineratu du igoerarekin ere "oso zerbitzu merkea" izaten jarraituko duela Agorrosingoak, beste herri batzuekin alderatuz: "Adibidez, 18 urte-tik beharrezkoentzat abonua 12 euro izango da". Ikasleek, pentsiodunek eta ordaintzeko zailtasunak izan ditzaketen bestelako herritarrek %75 murriztagoa den tarifa bat izaten jarraituko dutela gaineratu du.

Lanpostuen harira, Azkaratek zera adierazi du: "Gure konpromisoa da zerbitzuaren kalitatea mantentzea, eta, horretarako, orain dauden langile guztiak behar ditugu".

## NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE



## Bergara No-doa

G arai bateko No-doa konnotazio frankista izan arren, hainbat dokumentu interesgarri utzi ditu; adibide bezala, 1967an Bergarari buruz egindako dokumentala. Aurreko astean izan nuen bideoa ikusteko aukera, M.A. Elkorobere-zibarrek RTVEren artxiboetan aurkitutakoa, hain zuzen. Jau-regiak, parrokiak, Seminarioa... ondo azaltzen da bergararontzat horren ezaguna den historia eta XVIII. mendean zientzia eta kultura arloan Europa osoan izandako ospea.

Baina dokumentu honetan, 60ko hamarkadan bergararrak nola bizi ziren izan da deigarriena niretzat. Industria indartsu zegoen sasoi hartan. Gaur egun desagertuta dauden oihal-lantegiak, etxetresnen fabrika, Altos Hornos... irudi kuriosoak dira. Eta herriko kaleetan ateratakoak? Jendea dotore jantzita, bergararren fama zainduz, kaleak zeharkatzen jakinda telebistan azalduko zirela.

Bestalde, Bergarako pilotalekuak urrezko sasoiak bizi zituen, eta beteta azaltzen da. Jokalari onenak kantxan eta apustu gogorak ikusleen artean.

Azken irudiak orduko gizar-tean horren garrantzitsuak ziren elkarteak dira. Janaria aurrean, mundua konpondu, eta, nola ez, abestu egiten zuten herritarrek. Hunkigarriak izan dira azken hauek niretzat, Bergarako Orfeoian ezagututako abeslariak gazte eta indartsu ikusi baitituzte. Ez galdu dokumentu hau ikusteko aukera.



FERNANDO COBOS

## Cobos eta 'Gari' podiumean

Fernando Cobos bergararrak eta haren txakur Gari-k hirugarren egin zuten pasa den asteburuan Antzinen (Nafarroa) jokaturako lur gaineko Euskal Herriko Mushing txapelketan, M40 modalitatean –eskumatik lehenengoak argazkian–. Saikapen orokorrean zortzigarrena izan zen Cobos.



Bergarako Udala

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarritako dauden tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren K epigrafeko lau tarifa aldatzea (K epigrafea: Udal frontoiak, igerilekuak eta kiroldegiko instalazioak)

Erabakia Udalbatza Osoak 2015eko azaroaren 9ko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedienteaz aztertuta eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinarazi zaio jendeari 2015eko azaroaren 11n argitaratutako iragarkiaren bitartez eta 2015eko azaroaren 12tik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2015eko azaroak 11  
ALKATEA

## Santa Zezilia, musikarien eguna, ospatuko dute datorren egunean, hilak 19, Musika Eskolakoek

Santa Zezilia eguna da datorren egunean, eta, urtero bezala, egitarau berezia prestatu du Bergarako Musika eta Dantza Eskolak. 17:30ean Gazte Bandak eta hizkuntza musikaleko ikasleek kalejira egingo dute Musika Eskolatik San Martin plazaraino, eta han abesti batzuk kantatuko dituzte. Ondoren, txokolata izango da. Bestalde, txistulariek eta trikitilariak herriko kaleetan zehar joko dute.

## Hondakinen gaineko kontsultan boluntario izateko dei egin dute

Udalak boluntarioak behar ditu azaroaren 29ko hondakinei buruzko kontsultan mahaikide aritzeko. Idazkaritzan eman daiteke izena, 08:30etik 13:30era bitartean, Udalak prestatu duen inprimakia erabilita. Gaur da azken eguna. Bergaran erroldatuta egotea, adinez nagusia izatea eta eskola graduatua izatea dira baldintzak.

## Euskal kanta eta jolasen ikastaroa egingo dute San Martin ikastetxean

San Martin Agirre Herri Eskolako gurasoen elkarteak antolatuta, euskal kanta eta jolasen ikastaroa egingo dute bihar, azaroak 14. Ikastaroa Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetako ikasleei zuzenduta dago. 11:00etatik 12:30ak arte egingo dute, San Martingo Haur Hezkuntzako eraikinean.



## Jardunen dena prest daukagu 25. urteurreneko ospakizun handirako

**K**OMUNITATEA GOIENA  
JARDUN EUSKARA ELKARTEA

Hilaren 21ean, Jardunen mende laurdena ospatzeko jaia egingo dugu. 12:00etan hasiko da, frontoian, paella lehiaketarekin. Gero, 14:30ean, bazkaria egingo dugu.

Bazkalostean, Koplá Barik bertso eskolako saioa izango dugu. Gainera, 15:30etik 17:30era ludoteka zerbitzua eskainiko dugu.

Arratsaldean, 17:30ean, mosaiko erraldoia egingo dugu, eta ordu erdi geroago Zesuma taldearen erromeria izango da.

Gaur da lehiaketan eta bazkarian izena emateko azken eguna. Jardunen bulegoan eta Pol-Pol, Arrano, Kortazar eta Hamaika tabernetan egin dezakezue.

Urteurren berezi horretarako *Larre zaharretan* kantua sortu du Aritz Alustizak, herriko hainbat musikarirekin batera.

### Liburuen truke azoka

Bestalde, liburuen truke azokaren seigarren edizioa egingo dugu datorren egubakoitzean, azaroak 20. Eguenera arte, hilak 19, etxean dituzuen eta jada behar ez dituzuen euskarazko liburuak ekar ditzakezue Jardunen bulegora. Liburu bakoitzeko txartel bat emango dizuegu trukean, eta zapatuan txartel hori zuek aukeratutako beste liburu bategatik trukatu ahal izango duzue.

### Bertso finalerako sarrerak

Abenduaren 20an arratsaldeko bostetan hasita Donostiako Illunben jokatu den Gipuzkoako bertsolari txapelketako finalera joateko sarrerak salgai ditugu Jardunen.

Azaroaren 20ra arte egongo da sarrerak erosteko aukera, 20 euroko prezioan.

## OHARRAK

### BOTOA POSTAZ (EAJ)

Abenduaren 20ko Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetan botoa postaz emango dutenei laguntzeko bulegoa ireki dute batzokian. Ordutegia: 11:30-12:30 eta 18:00-20:00. Abenduaren 10a da eskaera egiteko azken eguna.

### BOTOA POSTAZ (EH BILDU)

Abenduaren 20ko hauteskundeetarako posta bidezko botoa tramitatzeko bulegoa zabaldu du Bergarako EH Bilduk Artatse elkartearen. Astelehenetik egubakoitzera izango da zabalik. Ordutegia: 11:30-13:30 eta 17:30-19:30.

### BOTOA POSTAZ (PSE-EE)

Abenduaren 20ko hauteskundeetan posta bidez bozkatzeko eskaera egin daiteke PSE-EEren Bidekurutzeta 33ko bulegoan. Abenduaren 10a da azken eguna, eta astelehenetik egubakoitzera izango dute bulegoa zabalik. Ordutegia: 11:00-13:00 eta 17:30-20:00.

### 'CARMEN' OPERA

Azaroaren 26an Compañía Nacional de Danzaren *Carmen* opera ikusteko doako autobusak izango dira. Bergaran, autobus gel-

tokian izango da, 18:35ean. Autobuserako izen-ematea: Udaleko Kultura zerbitzuan.

### 1953KO KINTADA

Azaroaren 21ean Tartufon egingo dute afaria. 20:30ean autobusa izango da azokako geltokian, eta afalostean dantza. Izena Tartufon edo ONCERen kioskoan eman daiteke, 15 euro ordainduta. 19a da apuntatzeko azken eguna.

### 1958KO KINTADA

Azaroaren 28an ospatuko dute, Sirimiri jatetxean, 21:30ean. 20:00etan elkartuko dira Usoa tabernan. Txartelak hilaren 22ra arte eskura daitezke Usoan eta Sirimirin, 20 euroren truke.

### 1970EKO KINTADA

Azaroaren 21ean Etxagin egingo dute urteroko bazkaria. Ariznoa tabernan elkartuko dira, 13:00etan. Izena emateko: Sugoi dendan (943 76 59 54).

### 1980KO KINTADA

Azaroaren 28an Etxagin izango da. Izena emateko, 25 euro sartu behar dira 3035 0009 18 0091148489 kontu zenbakian, azaroaren 24a baino lehen.

# Bergarako artisten fenomenoaz aitzakia Donostian

Simon Arrietaren eragina eta herritarren artearekiko zaletasuna berbetagai

M.T. | BERGARA

Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean ikusgai den Simon Arrietari buruzko erakusketa bihar arte izango da ikusgai. Azaroaren 20tik aurrera, osterara, erakusketa antologiko hori Aroztegi aretoan jarriko dute. Hila-betez egongo da zabalik.

### Bergarako pintore eskola

Simon Arrietaren (1915-1969) jaiotzaren mendeurrenaren aitzakian, bestalde, Bergarako 30 artistatik gora hurbildu ziren Koldo Mitxelenara azaroaren 4an. Mahai-ingurua egin zuten. Bergarako pintore eskolaren fenomenoan izan zuten berbetagai belaunaldi ezberdineko artistek, makina bat bitxikeria eta gertaera gogoratuz.



Bergarako artistak Koldo Mitxelenan. | M.A. ELKOROBREZIBAR

# Bideo jokoak eta kontzertua izango dira Zientzia Astearen egitarauaren baitan

Gaur arratsaldean Osintxuko Soraluze lantegira bisita gidatua egingo dute

M.T. | BERGARA

Gaurko, egubakoitza, Osintxun dagoen Soraluze enpresara bisita gidatua antolatuta du Udalak, Zientzia Astearen baitan. 15:00etan hasiko dute bisita, eta orubete inguru iraungo du. Fresatzeko eta mandrinatzeko makinak egiten dituzte bertan,

puntako teknologia erabilia horretako.

Bihar, berriz, goizeko hamaitetan hasita eta arratsaldeko zazpiak arte, bideo jokoen lehiaketa izango da Udal Pilotalekuan.

Hori bukatu bezain laster, Latox taldeak kontzertua eskainiko du, toki berean. Bergarako

eta Donostiako musikariz osatutako talde horrek musika elektronikoa esperimentala jorratzen du.

Horiek izango dira aurtengo Zientzia Asteko azken ekintzak. Bestalde, hilaren 29ra arte drone modelo bat izango da ikusgai Laboratorium museoan.

## FORD-EN ASTE URDINA

AZAROAREN 1etik 20ra

FORD FOCUS  
13.390€



PREZIO IKUSGARRIAK

FORD FIESTA  
8.990€



### MUGARRI AUTOAK

Arrasate  
Araba etorbidea z/g  
tel.: 943790744

Bergara  
Amillaga 5  
tel.: 670827186

Ford gama. Batez besteko kontsumo konbinatua 3,6-8,9 l/100 km. CO2 isurpenak 95-194 g/km.

2015eko azaroaren 1etik 20ra arte, Ford gaman deskontuak eta prezio ikusgarriak izango ditugu. Eskaintzak eskura izango dira Ford kontzesionarioetan stockean dauden autoentzat. Eskaintzak barne hartzen du: BEZA, IEDMT (garraio bide mota batzuei ezarritako zerga berezia, autonomia erkidego bakoitzaren arabera); hortaz, komeni da kasuan kasu aztertzea; garraioa, sustapen-deskontua, kontzesio-ekarpena eta deskontua FCE Bank PLC S/REkin finantzatzearren Vente a Ford Credit kanpainaren bidez, 24 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoarekin. (EcoSport-en eta Tourneo Courier-en kasuetan, 36 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoarekin). Gobernuaren Pive planaren ekarpenaren menpe. Penintsulan eta Balear uharteetan baliagarria. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Iragarri agertzen diren modeloez ez dute zertan eskaintza izan. Ford.es.

**BERGARA**  
**MARMOLERIA**

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimera

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA



# Eskuak goian, burua tente eta hankak arin jarraitzeko prest

Bihar hasiko da Oñatz dantza taldearen 45. urteurreneko ospakizun festa

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Zubillagako neska dantzari talde batekin batera, 1970ean hasi zuen Oñatz dantza taldeak bere ibilbidea. Orduan egin zuten lehenbiziko Haurren Eguna eta Zubillagako Izarrak taldeko neskek Oñatiko arku-dantza egin zuten. 60 bat lagun elkartu ziren orduan, familia giroan, eta harrezkero makina bat herritar izan dira Oñatzen sasoi batean edo bestean, eta makina bat ekitalditara heldu da Oñatz, Oñatz ez da-eta dantza talde bat bakarrik. "Txorima-loekin, umeekin... lan ezberdinak egiten ditugu", dio taldeko kide Zuriñe Lazkanok.



Zuriñe Lazkano eta Eider Quintas, Oñatzen lokalean martitzenean. | O.E.

## Herriarendako

45. urteurrena ospatzeko ekitaldiek astebete iraungo dute eta zapatuan izango da lehena. Oñatiko Musika Bandak, txistulariak, Ganbara Abesbatzak eta Arrasa-

teko gaiteroek hartuko dute parte Oñatzeko dantzariekin batera. Entzuteko eta ikusteko ekitaldia izango da, Zubikoako pilotalekuan. Baina dantza egiteko aukera ere egongo da, Oñatzek ganoraz ospatu gura du-eta 45. urteu-

rrena. "45 urte hauetan lan handia egin dugu herriarendako eta herriak beti erantzun digu ondo", adierazi du Lazkanok.

Dantzaren historiari buruz eta dantzari jantziei buruzko hitzaldiak ere antolatu ditu Oña-

## EGITARAUA

### AZAROAK 14

22:30 Ekitaldi nagusia\*  
Zubikoako pilotalekuan.

### AZAROAK 15

12:30 Konpartsa, Santa Anatik hasita. Gonbidatua:  
Arrotxapeako konpartsa.

18:00 Herriko umeak eta gaztetxoak dantzan, Foruen plazan.

### AZAROAK 17

19:00 Ane Albisuren hitzaldia:  
Atonduz. Gaztelekuan.

### AZAROAK 18

19:00 Iñigo Murgiondo Arregiren hitzaldia: Oñatiko dantzaren historia. Kultura etxean.

### AZAROAK 19

19:00 Sorgin-dantza herrikoia kalerik kale.

### AZAROAK 21

11:00 Hamaiketako kontzejupean. Ondoren, dantza txikiteoa eta bazkari herrikoia. Sarrerak salgai: Txokolateixan, Aloñan eta Izarritzen. 25€.

\* Ekitaldi nagusirako sarrerak 10 eurotan daude salgai eta herri bazkarirako txartelak 25 eurotan. Txokolateixan eta kultura etxean.

## Ehun zapata pare jaso gura dituzte gorritz pintatzeko

Emakumeen kontrako indarkeria salatzen erabiliko dituzte Foruen plazan azaroaren 25ean

O.E. | OÑATI

Zapata gorritz egindako arte instalazio bat egin gura dute Foruen plazan azaroaren 25ean (eguztana), Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunean. "Elina Chauvet artista mexikarrak Ciudad Juarezko feminizidua salatzen erabili zuen erreplika bat egin gura dugu. Artistari baimena eskatu diogu instalazio hori Oñatin egiteko, eta eman digu", azaldu du Maitane Iribarrek, Udaleko Berdintasun teknikariak.

Instalazioa egiteko zapatak batu gura dituzte orain. Ehun zapata pare lortu behar dituzte instalazioa egiteko, horixe baita artistak jarritako baldintzetako bat. "Zapata horiek gorritz margotuko ditugu. Herritarrek erabiltzen ez dituzten oinetako pare zaharkituak jaso gura ditugu, behar ez dituztenak, gero ez ditugu-eta itzuliko", adierazi du Iribarrek.

Oinetako horiek gorritz margotuko dituzte, odola, indarkeria sinbolizatuz. Azaroaren 25ean



Gorritz margotutako zapatak. | CENTRODESALUDVICTORIA.COM

herriko plaza nagusian jarriko dituzte, "falta diren emakumeak gogora ekartzeko", Berdintasun teknikariaren esanetan.

## Tailerra

Udaletxeko sarreran jasoko dituzte oinetakoak. Azaroaren 23ko

goiza da zapatak udaletxean uzteko azken eguna. Azaroaren 23an eta 24an oinetako pare horiek guztiak gorritz margotzeko tailerra egingo dituzte. Emakumeen kontrako indarkeria salatzen erabiliko dituzte zapatak. Azaroaren 25ean egingo dute plazan, 18:30ean.

## Botoa postaz emateko bulegoa zabaldu du EAJk batzokian

Abenduaren 20an egingo diren hauteskundeetarako posta bidezko botoa emateko bulegoa zabaldu du Oñatiko EAJk batzokian. Astelehenetik egubakoitzera egingo da irekita bulegoa, 11:30etik 12:30era eta 18:00etatik 19:00etara. Posta bidezko botoa emateko azken eguna abenduaren 10a da, egun hori barne.

EH Bilduk gogorarazi du abenduaren 10a dela azken eguna aldi baterako atzerrian Hego Euskal Herritik kanpo bizi direnek eta gaixo edo ezinduek errolda egiaztagiria eskatzeko. Botoa eta agiriak bidaltzeko azken eguna abenduaren 16a da.

## Arrikutzeko animalien aztarnak ikusiko dituzte bihar

Bisita gidatu berezia egingo dute bihar, zapatua, Arrikutzeko. Koba barruan antzina bizi ziren animalien aztarnak bertatik bertara ikusiko dituzte, gidari baten laguntzarekin.

Familian egiteko bisita izango da, umeak eta gurasoak daude gonbidatuta. Garai bateko lehoien, hartzen eta mamuten aztarnak ikusi eta animalia horiek nola bizi ziren, zer ohitura zituzten eta ze garapen izan duten ikertuko dute umeek. Bisita euskaraz izango da. 10:00etan hasiko da eta bi ordu iraungo du. Komeni da izena aurrez ematea telefono zenbaki honetara deituta: 943 08 20 00. Sarrera hiru euro izango da.



IMANOL SORIANO

## Gustatu zaie autokarabana-gunea

San Martin auzoan dagoen autokarabana-gunea joan den asteburuan inauguratu zuten, eta pozik agertu ziren udal ordezkariak zein erabiltzaileak. "Sekulako gunea da; behar ditugun zerbitzu guztiak ditugu eta paraje zoragarrian dago. Ask

eskertzen diogu Oñatiko Udalarari horrelako gunea baten aldeko apustua egitea", esan zuten gunearen erabiltzaileak. Sorbeltz elkarteak kide batek plaka bat eman zien udal ordezkariari esker on moduan, gunea "ondo prestatuta" dagoelako.



# Antzinako dendak aspaldiko argazkietan

Txanda elkarteak lehiaketa berri bat jarri du martxan eta erakuslehoetan jarri ditu galderak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

*Dendak Oñatin lehen, orain eta beti* izeneko lehiaketa hasi du Txanda elkarteak. Herriko hamazazpi komertziotan beste horrenbeste argazki zahar jarri ditu eta bakoitzak galdera bat du. Galderak zuzen erantzuten dituztenen artean diru sariak banatuko ditu Txandak.

## 50 sari

Txandako hamazazpi dendatan jarri dituzten argazkiak antzinakoak dira, eta, guztietan, herriko lehenengo komertzio baten gai-

neko galdera dago. Dendarien izenak aipatzea, saltzen zituzten produktuak gogoratzea edo egungo kokapena argitzea eskatzen dute, adibidez, galdera horiek. Adineko pertsonentzako edo haien laguntzarekin egin beharreko lehiaketa da. "Argazkiak lortzeko ere herriko erretiratuen laguntza izan dugu. Tamalez, lehen ez ziren gaur beste argazki ateratzen eta erakuslehoetan jarri ditugun irudi gehienak Udal Artxibokoak dira. Baina informazioa batzen asko lagundu digute erretiratuek", azaldu du Txanda dendari elkar-



Atzeko Kaleko Baio arropa dendako erakuslehoetan dagoen argazki zaharra. | OIHANA ELORTZA

teko presidente Juan Carlos Aranburuk.

Lehiaketa horretako argazkiak dituzten dendek erakuslehoetan jarri dituzte ikusgai, eta galderei erantzuteko eskuorriak Txandako komertzioetan lor daitezke. Erantzunekin batera, erosketak egindako herriko sei komertziotako ziguiluekin

beteta entregatu beharko dira eskuorri horiek.

Promozio kanpaina hori dagoneko hasi da eta azaroaren 27ra arte iraungo du. Erantzun zuzenean entregatutako eskuorrien artean 20 euroko 50 erosketa txartel banatuko ditu Txandak. Txartel horien zozketa azaroaren 30ean egingo dute.

## Dantzarien arropak

Bestalde, antzinako argazkiak ez ezik, dantzarien arropak edo bestelako tresnak ere ikus daitezke herriko komertzioetan. Izan ere, hilaren 23ra arte, dantzako materialaren erakusketa egongo da dendetako erakuslehoetan Oñatzen 45. urteurrena ospatzeko.

## NIRE USTEZ

XABIER  
ETXEBARRIA



## Meta-zutabea

Soziologiako adar bat meta-soziologia da, soziologiaz diharduen soziologia. Gaur nik nire zutabearen ere berdina egingo dut, nire zutabeaz jardun, meta-zutabea deituko diogu. Eta bai, arrazoia sinplea da, ez nekien zertaz idatzi, zutabeaz pentsatzen jarri naiz eta burura etorri zaizkidan ideiak idatziko ditut.

Ohituta nago jendaurrean hitz egitera, elkarriketak erantzutera, kazetari bezala lan egin dut, baina *Goiena*-ko zutabe honekin zerbait arraroa gertatu zait. Askok lotsatu naiz, kostatu egin zait argitaratutakoa

irakurtzea eta jendeak zerbait komentatu izan didanean, bakanen bat, ez pentsa, lotsatu egin naiz.

Akaso zutabe pertsonal bat delako, nahiz eta saiatu naizen borroka desberdinez jarduten, feminismoa, okupazioa, euskalgintza, gure herriaren burujabetza, prekarietatea edota gazte boterea.

Gaur ere badaude madarikatuak izatea merezi duten kabroiak, Kortxoenea bota dutenak edota azken egunetan bost emakume erail dituzten matxistak. Baina ez dut gogorik horretaz luzatzeko.

Akaso, gaur mendira joan eta lasai egoteko gogoia duzun egun horietako bat daukat, lagunekin irten, perretxikoez hitz egin eta mozkortzeko edota maitalearekin ohean egotekoa.

Hori ere gehiagotan egin beharko genukeela uste baitut, gure buruaz pixka bat arduratu.

## Inprobisazio gala bat egingo dugu urtarrilean

KOMUNITATEA GOIENA | IRAZAN ANTZERKI GUNEA | OÑATI

Irazan antzerki guneak antolatuta, inprobisazio gala bat egingo dugu urtarrilaren 8an. Baina gala hori prestatzen hilabete honetan, azaroan, hasiko gara. Inprobisazio ikastaro bat antolatu dugu.

Ikastaro hori taldeari eta herriari begira egingo dugu; beraz, herritar guztiak daude gonbidatuta. Maite Aizpurua izango da ikastaro honen gidaria. Orain arte inprobisazioaren teorizazioa ikasi dugu eta gu geure kasa ere ibili gara inprobisazioa praktikatzeko, lantzen. Baina aditu baten aholkuak eta esperientzia jasotzea beharrezkoa ikusten dugu, oso lagungarria izango zaigu, eta horregatik pentsatu dugu ikastaro hau antolatzea.

## Izena

Inprobisazio ikastaro hori azaroaren 22an egingo dugu Irazan antzerki gunean, Eltzian, 16:00etatik 20:00etara. Parte hartzeko izena eman behar da aurrez, plazak mugatuak dira eta. Animatzen denak bidal ditzala bere izen-abizenak helbide honetara: [irazan-taldeak@gmail.com](mailto:irazan-taldeak@gmail.com).

Bestalde, gogoratu: gaztetxo eta nagusien talde bana dugu antzerki entseguak egiteko. Hor ere tokia dago, antzerkia gustatuz gero.



Unai Mendia. | GOIENA

## Eskalada izango dute hizpide, irudiak lagun

O.E. | OÑATI

Mendi hamabostaldiaren barruan, Unai Mendia eskaladaria izango da martitzenean kultura etxean, eta izotzetan zein harrietan eskaladaria zer den azalduko du. Eskaladaren alde teknikoari buruz jardungo du Mendiak. Eguenean zineklubean emango duten *Valley uprising* filmak, berriz, 60-70 hamarkadetan Yosemite inguruan eskaladari buruz gazteek zuten filosofia erakutsiko du.

Bestalde, gaur, egubakoitza, emango dituzte *Natura eta mendia* argazki lehiaketako sariak, 19:00etan, zinema aretoan. 35 herrialdetako 238 argazkilarik parte hartu dute lehiaketa horretan, eta 911 argazki onartu dituzte. Natalya Andrianovak *Mendia eta gizakia* ataleko lehen saria irabazi du eta Jabier Camachok *Mendia eta ingurunea* saileko lehena. Argazkiak erakusketan gelan daude ikusgai.

## Otsailaren 19tik 21era egingo dute Oñatin gaztetxe topaketa

Otsailaren 19an, 20an eta 21ean egingo dute Oñatin Euskal Herriko gaztetxeen eta gazte asanbladen topaketa. Antixena gaztetxeak egin zuen proposamena, eta ondo ikusi dute Euskal Herriko gainerako gaztetxeek. Topaketa hori gazteen indar erakustaldia izatea gura dela argitaratu dute gaztetxeen ordezkariak sare sozialetan.

## Eroskin, Dian eta BMn ere utz daitezke Siriarako produktuak

Siriara giza laguntza bidaltzeko materiala biltzen ari da Txantxiki Familia Elkarteak, eta, Eltzian ez ezik, Eroski, Dia eta BM supermerkatuetan ere utz daitezke Siriara bidali gura diren produktuak. Hauek jaso gura dituzte, batez ere: umeendako pixoihalak, mantak, arroza, pasta, gasa, iodoa, konpresak eta janaria latetan -txerrikirik ez-.

## Azpiazu eta Etxegoien idazleek lan bana kaleratuko dute

Jose Antonio Azpiazuk eta Fermin Etxegoienek liburu bana kaleratuko dute azaroan. Azpiazuk *Y los vascos se echaron al mar* aurkeztuko du martitzenean, 18:30ean, osoko bilkuren aretoan. Etxegoienek azken lanak *Urpekariak* du izena eta hilaren 26an egingo dute aurkezpen ekitaldia Donostian.

## Haur liburutegiko irakurketa-klubean gurasoendako eta umeendako dago tokia

O.E. | OÑATI

Bularretik Mintzora kanpainaren barruan, irakurketa-klub saioak antolatu dituzte aurten ere haurren liburutegian. Saio horietan, gurasoek eta haurrek irakurketarekin lotutako ekimen batzuk burutzen dituzte elkarrekin, Galtzagorri elkarte profesionalak gidaturik. Adibidez: irakurketa ozenak, liburuen aurkezpenak, irakurritako liburuei buruzko komen-

tario eta liburuak ezagutzeko eta idatzizko literaturaren curriculum bat pixkanaka osatzen hasteko.

Hiru saio egingo dituzte, Lur Korta ipuin kontalariak gidatuta: azaroaren 18an eta abenduaren 2an eta 16an. 4 eta 6 urte bitarteko umeendako eta haien gurasoendako saioak izango dira eta izena aurrez eman behar da haurren liburutegian.



# 1.600 opari baino gehiago banatuko ditu Aretxartek

'Harraskatu eta irabazi' txartelak euro baten truke emango dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Azaroko bigarren hamabostaldia girotzeko asmoarekin, tonbola jarriko du abian Aretxartek. Datorren astelehenean hasita, *harraskatu eta irabazi* txartelak izango dituzte komertzioetan euro baten truke, eta "opari mordo" banatuko dituztela iragarri dute.

## Telebista eta kamerak opari

Aretxarte osatzen duten komertzioetan eta tabernetan, 50 gutzira, izango dituzte *hazkatu eta irabazi* txartelak, 50 bakoitzean. "Abendu aurreko kanpainatxo bat da, udazkeneko egunoi bizitasun apur bat emateko", dio Idoia Elexpuru presidenteak, eta jakinarazi du 1.600 opari baino gehiago dituztela gordeta banatzeko: "Opari mordo eta ederrak, gainera: telefona, argazki kamera bi, bidaia bat, erlojuak, guardasolak, albumak, turroiak... Baita UDAko jokalariek sinatutako baloiak ere".

Astelehenean hasi eta 2.500 txartelak agortu arte iraungo du kanpainak, eta merkatariek uste dute harrera beroa egingo dietela aretxabalarrek txartel horiei.



Aretxarteko presidentea Idoia Elexpuru txartelak eskutik erakusten ditu. | MIRARI ALTUBE

## Egutegia, abenduan

Iaz legez, aurten ere egin dute egutegia merkatariek, eta hori bukatu zain daude bezeroen artean banatzen hasteko. "Abenduaren erdi ingururako izango dira gertu", iragarri du Elexpuru, eta gaineratu: "Iazkoak harriztuta utzi zituen herritarrek eta gustura jaso zuten. Aurten goarekin ere asmatuko dugula koan nago".

## Gabonetako kanpaina

Bestetik, Gabonetako kanpainari ekingo diote abenduaren erditik aurrera. Azken urteetan legez txartelak banatuko dituzte bezeroen artean eta Aretxarteko komertzioetan erosi izana ziurtatzen duten sei zigilu jarri beharko dira hor. 50 euroko hoge txartel eta bost bidaia banatuko dituzte zigiluak dituzten txartelkin zozketa egin ostean.

# Liburua aurkeztuko du Jakoba Errekondok

'Bizi baratzea'-n jasotakoaren berri ematera dator egunean, Loramendik gonbidatuta

KOMUNITATEA GOIENA | LORAMENDI ELKARTEA | ARETXABALETAKO

Loramendiko Kultura taldeak antolatuta, Jakoba Errekondok hizlariak idatzitako *Bizi baratzea, garaiaren garaioa garai* liburuaren aurkezpena izango da udaletxe zaharrean. Hitzaldia azaroaren 19an da, eguena, 18:30ean.

## Zalantzak argitu

Liburuaren nondik norakoan bueltan arituko da Usurbilgo

paisajista. Landareen munduaren oinarriak, bere bizipenak eta ondorioak eta baratzeari lotutako beste hamaika kontu izango ditu hizpide Errekondok; hain zuzen ere, baratzean jarduteko behar diren ezagutzen berri emango die elkartutakoak.

Galdere-erantzunen bidez zalantzak zuzenean argitzeko aukera ere egongo da; hala, elkarren artean eztabaida eta jakintza partekatuko.

## 'Ospitalea edo zoroetxea' antzezlan martitzenean

Mus, tute eta briska txapelketak jokatu dituzte Basotxoko erretiratuek gaur, egubakoitza. Eta karta-joko jardunaldia afari eder batekin bukatuko dute.

Martitzenean, azaroak 17, oster, Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi taldeak Arkupen aurkeztuko du estreinatuta berri duen antzezlan: *Ospitalea edo zoroetxea*. 18:00etan da.

Sarrerak Basotxoko bulegoan banatuko dituzte. Erretiratuen elkarteko bazkideek debalde izango dute eta gainerakoek lau euro ordaindu beharko dituzte.

## 'Nerabeak Interneten: erabilerak, arriskuak' hitzaldia egunean

Guraso Foroak antolatuta, 11 eta 17 urte artean dituzten gurasoendako hitzaldia izango da: *Nerabeak Interneten: erabilerak, arriskuak, segurtasuna*. Pantallas Amigas erakundeak kideek emango dituzte argibideak Ibarra kiroldegian egunean, azaroaren 19an, euskaraz, eta azaroaren 26an, gaztelaraz. 18:00etan dira biak.

## 'El desconocido' filma dute helduek eta 'Campanilla' umeek

Helduek *El desconocido* (Espainia, 2015, 102 minutu) filma izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Eta umeek *Campanilla, la leyenda de la bestia* marrazki bizidunak bihar eta etzi (17:00).

Egueneko zineklubean, oster, *Bernie* filma (AEB, 2011) emango dute.

## FRONTENIS TXAPELKETA MISTOA

### Domekan frontenis txapelketako finala

Bikoteek ezin gusturago jokatu dituzte frontenis txapelketako lehenengo bi jardunaldietako partidua: "Segituan geratu da agerian bikote batzuen maila ona, eta, orokorrean, maila polita erakutsi dute guztiek", jakinarazi dute antolatzaileek, UDAko kideek, eta helburuak bete dituztela diote: "Giro polita izan da, bai kantxan, bai harmailtan, eta hainbat adinetako jendea elkartu da".

Bihar hirugarren jardunaldiko partidua jokatu dituzte eta domekan bukatuko da, finalerdia eta finala jokatu.

#### AZAROAREN 7KO EMAITZAK

Agurtzane Elkoro - Ibon Gonzalez / Elena Artieda - Javier Crespo	2-22
Lierni Zangitu - Ibai Zangitu / Oihana Irazu - Haritz Gorroño	22-21
Oihana Mata - Migeltxo / Maite Fraile - Mikel Iturri	22-19
Eneritz Ollobarren - Beñat Zubizarreta / Ariane Unanue - Asier Unanue	22-16
Amaia Gastañaga - Josu Lanzos / Rosa Ojuel - Javier Martinez	16-22
Leire Valle - Asier Valle / Jasone Garciaetxabe - Jon Diez	22-19
Lore Martinez - Aitor Artolazabal / Ibone Arrieta - Goio Arrieta	11-22
Ainhoa Galfarsoro - Adrian Merino / Miren Lezeta - Luis Unanue	22-13

#### AZAROAREN 8KO EMAITZAK

Oihana Mata - Migeltxo / Elena Artieda - Javier Crespo	9-22
Amaia Gastañaga - Josu Lanzos / Ainhoa Galfarsoro - Adrian Merino	22-14
Lore Martinez - Aitor Artolazabal / Oihana Irazu - Haritz Gorroño	11-22
Agurtzane Elkoro - Ibon Gonzalez / Maite Fraile - Mikel Iturri	5-22
Miren Lezeta - Luis Unanue / Rosa Ojuel - Javier Martinez	9-22
Jasone Garciaetxabe - Jon Diez / Eneritz Ollobarren - Beñat Zubizarreta	22-14
Lierni Zangitu - Ibai Zangitu / Ibone Arrieta - Goio Arrieta	15-22
Leire Valle - Asier Valle / Ariane Unanue - Asier Unanue	22-5

#### AZAROAREN 14KO PARTIDUAK

08:30	Lore Martinez - Aitor Artolazabal / Lierni Zangitu - Ibai Zangitu
09:00	Ariane Unanue - Asier Unanue / Jaso Garciaetxabe - Jon Diez
09:30	Ainhoa Galfarsoro - Adrian Merino / Rosa Ojuel - Javier Martinez
10:00	Oihana Mata - Migeltxo / Agurtzane Elkoro - Ibon Gonzalez
10:30	Oihana Irazu - Haritz Gorroño / Ibone Arrieta - Goio Arrieta
11:00	Leire Valle - Asier Valle / Eneritz Ollobarren - Beñat Zubizarreta
11:30	Amaia Gastañaga - Josu Lanzos / Miren Lezeta - Luis Unanue
12:00	Elena Artieda - Javier Crespo / Maite Fraile - Mikel Iturri
12:30-14:00	Final laurdenak

#### AZAROAREN 15KO PARTIDUAK

11:00	Lehenengo finalerdia
11:30	Bigarren finalerdia
12:30	Finala



## Maite Peña diputatua GSRn

Gizarte Politikako diputatua Maite Peña izan zen atzo GSR Debagoiena zaharren egoitzan bisitan. Eraikina ikusi eta egoiliarrekin eta langileekin egoteko aukera izan zuen hark. Adinekoen arretari Gizarte Politiken aurrekontuaren %37 bideratzen zaiola esan du astean. Gainera, "gizarte zerbitzuen mapa" garatuko dela bermatu du diputatuak, eta, hori ahalbidetzeko, erresidentzietan, eguneko zentroetan eta etxebizitzetan 140 plaza berri sortuko dituela aurreratu du.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETAKO



# ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA



**\_PROMOZIOAK**  
**\_SUKALDEAK**  
**\_BAINUGELAK**  
**\_EGONGELAK**  
**\_LOGELAK**  
**\_JOGAILUAK**  
**\_ARMAIRUAK**

 **bastidasukaldeak**


**12 hilabeteko finantziazioa, interes gabe!**

**INFORMA ZAITEZ!**

**zarautz**  
elizaurre 3, 20800  
tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

**azpeitia**  
perez arregi 9, 20730  
tel./faxes: 943 15 05 10

**bergara**  
ibargarai 36-38, 20570  
tel./faxes: 943 76 70 58





# Merkatua, arnasa hartzen

Batez ere, 30 urtetik aurrerako jendea hasi da etxebizitza bila, eta sektorea eurei esker dabil poliki-poliki biziberritzen

**P**ixkana-pixkana bada ere, badirudi etxebizitzaren salerosketa merkatua indarberritzen doala; horixe igarri dute inguruko higiezin agentziek. Datuek hori iradokitzen dute: Notarioen Kontseilu Orokorrak emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan %4 handitu dira salerosketak joan den urteko bigarren hiruhilekotik aurtengora, eta etxebizitzaren prezioak %2,2 murriztu ziren epe berean.

Debagoienean ere nabaritu da joera hori. Ortuibar agentziako Gurutz Beitiak "Aste Santua baino lehenagotik" igarri du hobekuntza: "Ez da antzina moduan, baina jendea berriz dabil etxebizitza erostera animatzen". Beitiaren iritziz, bankuak ere badabiltza baldintza zerbait hobekien ematen; dena dela, berak dioenez, "ez bankuek eurek dioten modu-



Salgai dagoen etxebizitza.

ko onak, baina bai, zerbait hobetu dira".

Gelmako etxebizitzak komertzializatzen dituen Bibai Inmobiliariako Zigor Aginagaldek euren egoera berezia dela azpimarratzen du: "Etxebizitza erosteko %100eko finantzazioa lortzeko aukera eskaini izan dugu guk, eta, horri esker, gure salmentak ez dira jaitsi. Baina hori kenduko bagenu, etxebizitzak saltzea konplikatu da".

Sukia Inmobiliariako Marketin arduradun Alvaro Maisuetxek dio "egoera zertxobait hobera" doala eta "interesa" dagoela igarri dutela, beste etxe agentzietako ordezkariekin bat eginez, eta Sukiak daroatzen bi promozioetan salmentak egin ditu aurretik. Maisuetxek honako faktore hauek antzeman ditu hobekuntza horretan: "Egoera hobera doa, eta, horrez gain, salgai dagoen produktuari baldintza berriak ipintzen zaizkio: adibidez, prezioaren barruan sartzen dira garajea edo sukaldeak eta armairuak, eta horrek dezente lagundu du".

#### PREZIO GARESTIAK

"Banketxeek ez dituzte lehen ematen zituzten erraztasunak berriz emango", Aginagalderen iritziz, eta orain sarreraren %80 finantzatzen dutela gaineratzen du.

Bibaiko ordezkariak azaltzen duenez, bereziki bigarren eskuko etxebizitzaren salerosketan dago "geldialdia". Eta horrek kate-erreakzio antzeko bat sortzen du:

"80.000 euroko etxebizitzak ez badu eroslerik, etxebizitza horren jabeak ezin izango du 100.000 euroko etxebizitza erosi, eta horren jabeak 150.000 eurokoa ere ez... Katea azpitik apurtu behar da", hori da Aginagalderen gogoeta.

*Pisos.com* webgunearan arabera, Euskadin, 10 eta 20 urte arteko etxebizitzak garestiak dira oraindik: 130 m<sup>2</sup>-ko adin horretako etxebizitza bat 352.316 euro kostatzen da, batez beste. Espainiako batez bestekoa 211.790 euro da.

#### IGOGAILUA, EZINBESTEKOA

Gelmako etxebizitzaren promozioa dela eta, bi motatako bezeroak ikusten dituzte, gehienbat, Bibain: "30 urtetik gorakoak, behin betiko etxebizitza erosi nahi dutenak, eta, bestalde, igogailurik gabeko etxebizitzan bizi den jende heldua, hura saldu edo alokatu eta igogailua eta garajea duen eta kaletik, merkatutik, ospitaletik... gertu dagoen etxebizitza nahi dutenak".

Antzeko zerbait esaten du Gurutz Beitiak. Bereiziki, 30 urtetik aurrerako jendea dabil etxebizitza bila: "Batzuek lehenengo etxebizitza nahi dute; beste batzuk, ordea, aurrekoa saldu eta behin betikoaren bila dabilta".

**Produktuak baldintza hobekien izaten ditu orain**

AZKENEKO ERAIKINA  
ARRASATE / URIBARRI

Baldintza berriak  
**943 31 68 68**  
www.sukia.com

FINANTZAKETA:



2x  
3x



Logelak

Garaje itxiak



Espazio osagarri batekin



Bista irekiak



Hornitutako sukaldeak



Armairuak

sukia GEDI



# Bizileku ederra, leku ezin hobean

%100eko finantzazioa lortzeko aukera eskaintzen dute Gelmako etxebizitzetarako



Gelmako etxebizitzak.

**B**ibai etxe agentziak Arrasateko Gelmako etxebizitza ezagunak komertzializatzen ditu. Horietako batzuk bukatutako blokeetakoak dira eta beste batzuk oraindik amaitu gabe daude, baina horietako bi atari salgai daude.

Bukatutako bi blokeetako bost etxebizitza daude oraindik salgai. Horrez gain, logela bateko etxebizitzak ere badaude salgai 135.000 eurotik –gehi BEZa–. Apartamentu horiek guztiz jantzita daude. Bibaik

ematen duen abantaila honako hau da: %100eko finantzazioa lortzeko aukera eskaintzen duela etxebizitza erosteko.

#### ETXEBIZITZA, NAHIERAN

Bestalde, 3. blokea dago; eraikinaren %80 eginda dago, eta barruko aldea bakarrik geratzen da: paretak, instalazioak... Bloke horretan, 24 etxebizitza komertzializatzen ditu Bibai agentziak.

Etxebizitza hori bukatzeke egoteak aukera ematen die jabe berriei bizilekua nahieran egiteko. Zigor Aginagaldek honela

azaltzen du: "Norberak erabaki dezake distribuzioa, armairuen kokapena, logelak handitu edo txikitu... Aukera polita ikusten dut hori, etxebizitza nork bere erara egin dezakeelako, asko pertsonalizatuta".

#### ESKAINZA BEREZIA

Prezio aldetik "oso lehiakorrak" direla azpimarratzen du Zigor Aginagaldek. Hala, hiru logelako etxebizitzak 93 eta 95 m<sup>2</sup> erabilgarri artekoak dira eta 254.000 eurotan –BEZ barik– saltzen dira. Bi logelako etxebizitzak

ere badaude aukeran, 72 m<sup>2</sup> erabilgarrikoak, 198.000 eurotik –gehi BEZa–. Eskaintza berezi bezala, bloke berriko lehenengo hamabi etxebizitzatan garajea prezio barnean ematen da; horietako zortzi saldu direnez, momentu honetan lau etxebizitzak garajea prezioaren barne dute. Garajeak ere salgai egongo lirarteke edozein eroslerentzat 20.500 eurotik hasita –gehi BEZa–.

Aginagaldek azpimarratzen du eskaintza berezi horren arrazoia dela sustatzaileak obra hasiteko 12 etxebizitza saldu behar

dituela; lehenengo 12 erosleek abantaila hori izango dute.

#### KALITATEA ETA KOKAPENA

Honako hau gaineratzen du Zigor Aginagaldek: "Etxe handiak dira, etxe ederrak, eta 1. eta 2. blokeen berdinak edo oso antzerakoak izango dira"; bereziki kalitate oneko etxeak, beraz. Eta kokapena ere azpimarratzekoa dute Gelmako etxebizitzek: Arrasateko leku ezin hobean daude, kalean bertan eta erdigunetik oso gertu, baina zaratarik eta ibilgailuen trararik gabe.

Promociones  
**Erregetxo Plaza**  
Bergara

Bergarako hirigune historikoan  
63 etxebizitza, libre, tasatu,  
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18  
LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

**Oraindik aukeran kokapen oso oneko etxebizitzak.**

**Zatoz ikustera edo klikatu**  
[www.promocioneserregetxoplaza.com](http://www.promocioneserregetxoplaza.com)

Informazio guztia gure web orrian.

Sartu eta ikusi



[www.promocioneserregetxoplaza.com](http://www.promocioneserregetxoplaza.com)





# Terraza edo gune irisgarria aukeran

Arrasaten eta Eskoriatzan, aire zabaletik gertu bizi izateko etxebizitzak



Arrasateko Uribarri auzoko etxebizitza bat, barrutik.

**D**ebagoiengan bi promozio komertzializatzen dabil Sukia etxe agentzia: Arrasaten bata, Udalpe kalean, Uribarri; eta Eskoriatzan bestea, Elorretan.

## KOMUNIKAZIO ERRAZA

Arrasateko etxebizitzaren gainean honako alderdi hauek nabarmentzen dituzte Sukiako ordezkariak: "Ingurune lasai ezin hobean dago, oso ondo orientatua". Erdigunetik 1,7 kilometrora bakarrik dago -5 minutu autoz eta 15 bat oinez

joanez gero-, eta zerbitzu asko ditu inguruan: dendak eta saltoki handi bat, kiroldegia, haurreskola, herri autobus geltokia, anbulatorioa, ospitalea, eliza... Horrenbestez, kalearen eta auzoaren abantailak bateratzen dituzte etxebizitza horiek, kokapen aldetik.

Eraikin horrek hiru atari ditu eta bertan bi eta hiru logelako etxebizitzak daude. Hiru logelakoen artean, hainbat motatakoak daude aukeran. Bestalde, beheko solairuko etxebizitzek gune irisgarria deitzen den bat daukate,

38 m<sup>2</sup> ingurukoa: "Komunikazioa etxebizitzatik egiteko aukera dago, eta garajeen sototik sar daiteke". Ia 38 m<sup>2</sup>-ko terraza ere badago.

Eta, bestalde, hiru logelako beste etxebizitzek terraza ere badute.

Etxebizitzaren prezioaren barruan sukalde -erabat jantzi- eta armairuak eta garaje itxi bat daude.

Hiru logelakoa 235.000€urotik eta bi logelakoa 195.000€urotik aurrera daude salgai -bi kasuetan, BEZa aparte-.

## LAU LOGELAKOAK

Eskoriatzan, Elorreta auzoan etxebizitzak ditu salgai Sukia etxe agentziak. Kokapen aldetik, ingurune natural eta lasaian daudela azpimarratzen dute Sukiako arduradunek.

Bi bizitzako eraikinak dira, eta bakoitzak lau logela, lau bainugela, sukalde, txokoa, trastelekua eta bi automobil sartzeko garajea ditu.

Logela nagusitik 10 metro koadroko terraza batera ateratzeko aukera dago. Etxebizitza guztiek dute zona berdea inguru-

ruan, batzuek beste batzuek baino handiagoa.

Etxebizitza horien prezioan ere sukalde guztiz jantzia eta armairuak daude.

Horrez gain, Sukiak azpimarratzen du erosleek aukera dutela etxebizitzaren azken materialak aukeratzeko eta, beraz, etxebizitza pertsonalizatzeko. Aukera horrek dirua aurreztean ere badakar, hasiera-hasieratik norberaren gustuko etxebizitza egiteko aukera dagoelako.

Etxebizitza horien prezioa da 380.000 euro gehi BEZa.

# Jantziak eta eraginkorrak

Erregetxo plazan, Bergarako leku ezin hobean, etxebizitza hornituak eta 'B' kalifikazio energetikodunak daude salgai



Erregetxo Plazako etxebizitza blokeen irudia.

**B**ergaran, Erregetxo plazako etxebizitzak salmentatzen dira Ortuibar etxe agentziak.

Honako etxebizitza hauek daude salgai: udal prezio tasatuko hiru etxebizitza, bat hiru logelakoa eta beste biak bi logelakoak -erregimen horretako hamar etxebizitza saldu dira-; eta beste 36 etxebizitza merkatu librekoak. "Altuera eta kokapen oneko etxebizitzak dira", dio Ortuibar etxe agentziako Gurutz Beitia arduradunak.

Promozio berekoak ziren babes ofizialeko beste hamabi etxebizitza, denak saldata.

## ENERGIA AURREZTEKO

Hedadura aldetik, salgai dauden etxebizitzak 70 eta 95 metro koadro artean dituzte erabilgarri, eta 245.000 eurotik hasita saltzen dira.

Ezaugarri nagusiak honako hauek dira: kokapen ezin hobea, Bergarako hirigune historikoaren barruan eta erdigunetik oso gertu; eraikuntzan, tabikeria aldetik, adreilu tradizionala eta pladurra konbinatzen dira, emaitza akustiko eta energia mailan emaitzarik onenak lortzeko. Ortuibar etxe agentziak nabarmentzen du "etxebizitza guztian erabilitako materialak oso kalitate onekoak" direla.

Bestalde, energia eraginkortasun aldetik, B klasifikazioa duten etxebizitzak dira. Bigarren

kalifikazio onena da hori eta batez bestekoa baino gastu txikiagoa dutela esan nahi du.

Kontuan hartzekoa da jantzi datozen etxebizitzak direla, neurri handi baten; hala, Xey markako sukaldeak dituzte, Bosch markako etxetresna elektrikoekin.

## NAHIERAN

Gaur egun boladan dagoen eta jende askok eskatzen duen beste aukera bat ere ematen dute Erregetxo plazako etxebizitzek, Gurutz Beitia azaltzen duen moduan: "Erosleek aukeran daukate etxebizitza euren gustura egitea. Guk betidanik eman izan dugu zerbitzu hori, eta gaur egun ere eutsi egiten diogu eskaintzari". Hala, eraikuntza eta hornikuntza zein fasetan dauden kontuan izanda, erosleek aukera daukate material batzuk edo beste batzuk hobesteko eta ipinarazteko, aldaketak egiteko, hiru logelaren ordez birako espazioa egiteko...

## GARAJEA AUKERAN

Horrez gain, etxebizitza erosten dutenek garaje itxia erosteko aukera dute. Bai tasatuek, bai merkatu libreko etxebizitzek ematen dute aukera hori.

Etxe agentziak nabarmentzen du 36 etxebizitzak handiak eta distribuzio ergonomikodunak direla. Lehen mailako materialekin eginak daude, eta altzariak eta etxetresnak dituzte.



# Igogailuak modernizatuz

Gertuko zerbitzua eskaintzen du Bertan Igogailuak enpresak eta bezero bakoitzaren beharretara egokitzen da

**B**ertan enpresak igogailuen mantentze-lanetan eta instalazioan lan egiten du. Urtebeteko kontratuak, telefono linearen kudeaketa doan egiteko aukera, 24 orduko zerbitzua eta igogailu guztien azterketa energetikoa; hori guztia eskaintzen du, bezeroen eskubideak defendatzeko helburuarekin, eskainitako zerbitzuaren eta ordaindu beharreko prezioaren arteko erlazioa bilatuta.

Azken urteotan, higiezin *boom*-ak igogailu parke berri bat ekarri du bailarara, baina parkearen erdia baino gehiago betetzen duten igogailuak modelo zaharrak dira. Honela adierazi du Bertan Igogailuak kooperatibako Ibai Salazar ingeniariak: "Debagoieneko igogailuen parkea gutxika-gutxika zahartzen ari da, eta, askotan, enpresek aprobetxatu egiten dute modernizazio garestiak



Bertan enpresako langilea mantentze-lanak egiten.

saltzeko, baina badaude eta guk baditugu beste aukera batzuk".

Igogailuak bi zati ditu: alde batetik, maniobra, alde elektronikoa dena; eta bestetik, talde hidraulikoa edo talde traktorea, motorra dena. Motorra, askotan, birbobinatzen eramatean da, eta aldatzea ezinezkoa denean berri bat jarri behar da. Gutxi gorabehera, igogailu baten motorra aldatzeak, eskulana barne, 3.000 eurotik gorako kostua du.

Elektronika edo maniobra aldatzea bat egin behar bada, aldiz, 5.000 eurotik aurrerako kostua izan dezake. Batzuetan, aldiz, igogailuak dituen plakak jada ez dituzte egiten igogailuen fabrikatzaileek, eta eurek erabakitzen dute igogailu modelo bat egiten jarraitzea edo ez egitea. Horiek mantentzen dituzten elementuekin ere berdina gertatzen da. Elementurik ez badago, berria jarri behar da, eta enpresek hori hartzen dute helburu gisa, berria jartzea, eta kostua handiagoa izatea. "Maniobra edo motorra aldatzeak 8.000 euro inguruko kostua du, baina badira kasuak maniobra aldatzea bakarrik 8.000 euro ordaindu dela. Hori enpresa bakoitzak duen tarifarekin dago lotuta, eta ez obrak balio duenarekin".

## BIZITZA LUZATU

Produktuek zaharkitzapen programatu dute, eta produktu baten bizitza erabilgarriari bukaera zehatza ezartzen diote fabrikatzaileek. Erabiltzaileak behar baino lehenago baztertu beharko du

erositako produktua, ekoizleak produktu horretarako ordeko osagairik eskaintzen ez duelako edo produktua konpontzeko zerbitzu teknikorik eskaintzen ez duelako.

Horrekin lotuta, produktuaren bizitza luzatzeko aukera dagoela azaldu du Bertan enpresako Ibai Salazarrek: "Plaka elektronikoa batzuk garatu dituzten ingeniariak dauzkagu. Plaka horiekin, maniobra aldatu beharrik ez dago beharra dagoenean, eta igogailu berberak urte gehiago irauten du".

Bertan igogailu enpresak modelo zaharretan enfokatutako lantalde profesional bat dauka igogailuen mantentze-lanak egiteko eta, berria jarri barik, modelo zaharra konpontzeko. Hala, konponketaren bat egin behar denean konplikaziorik ez izatea da horren helburua. Aukera hori izanda, mantentze-lanak egiten direnean, bizilagunen komunitateak erabaki dezake modernizazioak noiz egin eta noiz ez.

Bestalde, denbora laburrean igogailu guztiek telefono instalazioa izango dute. Horregatik, Bertan igogailu enpresak telefonorik ez daukaten bezero guztiei instalazioa egingo die lege hori aldatu aurretik, ordurako prest egoteko.

**Modernizazio garestiak saihestuz aukera gehiago**

## III. BLOKEA DAGOENENKO SALGAI

~~14~~ 16 ETXEBIZITZA

GELMA  
etxebizitzak

70 M<sup>2</sup>  
erabilgarri

ETXEBIZITZA HANDIAK

95 M<sup>2</sup> erabilgarri

Lehenengo ~~2~~  
4 etxebizitzek  
garajea barne

Garaje itxi eta  
motordunak

ETXEBIZITZAK  
NAHI ERAN

Aukeratu etxearen  
distribuzioa\*

2 logela 198.000 €-tik + BEZa

3 logela 254.000 €-tik + BEZa

**BIBAI**  
INMOBILIARIEN

T 943 25 38 21

E info@inmobibai.com

Deba kalea 3, Arrasate

www.inmobibai.com

\*Aukeratuak distribuzioa indarrean dagoen araudia eta instalakuntza orokorren kokapena errespetatuz egingo da.





Zuri kolorea nagusi duen sukalde modernoa.



Sukaldeko ate bako apala.

# Sukalde argitsuak zuria erabilita

Sukalde-gainekoaren altuera geroz eta gehiago zaintzen da, eroso lan egiteko

**K**olore eta testura sorta handia egon arren, sukaldeen azken urtetako joera ez da askorik aldatu. Sukalde zurien eskaera dago, zabaltasun sentsazioa areagotzeko eta argitasun handiagoa egon dadin. Batez ere, distira gura izaten du bezeroak, nahiz eta bere lekua hartzen ari den matea zetazko akaberarekin.

Materialari dagokionez, erraz garbitzen dena eta iraunkorra bilatzen du bezeroak. Horregatik, sukaldeak ate geruzatuekin fabrikatzen dituzte Carrascal Aroztegiak, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio ona eskainita. Sukalde lakatua, berriz, geroz eta gehiago eskatzen da; erakargarria da bere akabera, eta zetazko ukituak xarma ematen dio. Eskulekuean, azken urtetako joera berak jarraitzen du: atekin batera datoz eskulekuak modulu baxuetan, eta

ezkutuan modulu altuetan, pomoak eta kirtanak baztertuta.

Bestalde, geroz eta gehiago zaintzen dira lan egiteko altuerak. Horregatik, modulu baxuko altueraren eta zokaloaren arteko konbinazio-aukerak handitu ditugu, sukalde-gainekoaren altuera bezeroaren neurriara egokituta, erosoago lan egiteko. Modulu baxuetan, aldiz, botilategiak, ogi-saskiak eta halakoak eskatzen dituzte bezeroek.

Carrascal Aroztegiaren arabera: "Erosotasuna, sukalde praktikoa eta gauzak gordetzeko lekua eskatzen du bezeroak, diseinuaz ahaztu barik. Hala, tiraderak jarriz, denbora gehiegi armairuaren barrenean gauzak bilatzen ibiltzea ekidin nahi izaten da".

Zati altuetan, zintzilikariak jartzen dira ate eraigarriekin –gorantz irekitzen direnak–, atetako orriak bezala, led argiteriarekin lan eremua argiztatzeko

asmoz. Carrascal Aroztegiak tiradera eta burdineriek balaztatze sistema bat dute ixterakoan, eta tiraderen bandek ere badituzte. Hala, atek ixte leun eta isila izaten dute.

Sukalde-gainekoei dagokionez, nabarmentzekoak dira Dekton zeramizko materialak; erresistentzia handia dute: marradurak ez gertatzeko, berotasunari aurka egiteko eta hezetasunarekiko deformaezinak izateko. Ontzi-garbigailuetan eta arropa-garbigailuetan, berriz, integratuak eskatzen dira gehien, ezkutuan daudenak, baina bistan geratzen direnak.

## INGURUMENA ZAINDU

Ingurumenarekiko kontzientzia dela-eta etxetresna elektriko eraginkorren eskaera handiagoa da. Izan ere, elektrizitatearen eta uraren gastua txikitzen da. Emaitza hobekia lortzen dira garbitasunean eta elikagaien kontserbazioan.



- Debagoienean finkatutako enpresa, %100 euskalduna.
- Iraupen-konpromiso barik funtzionatzen duen enpresa bakarra.
- 24 orduko benetako zerbitzua eta pieza guztiak barne 100 €-tik aurrera.





# Biziraupen luzea helburu

Armairuak eta bainugelak bezeroen gustura egiten dira, kanpoaldetik zein barnealdetik espaziotsuak direnak

**S**ukaldeetan kolore erabiliiena zuria da; bainugelatan, berriz, askotariko koloreak erabiltzen dira. Edozelan ere, distira azpimarratu nahi izaten da. Carrascal Aroztegiko esanetan: "Bezeroek gehien eskatzen duten materiala formikoa da, erresistentzia eta kalitate eta prezio ona bermatzen duelako. Altzari lakatua ere asko eskatzen digute".

Moduluak, berriz, zintzilik jartzen dituzte gaur egun ere,

eta armairuek ez dute lurra ukitzen. Bestalde, bainugelaren tamainaren arabera altzari osagarriak ere jarri ohi dira, egunerokotasunean erabiltzen diren materialak gordetzeko: esekitakoak, euskarriak edo godaletak, eta abar.

Estalkiei dagokienez, "portzelana zurizko estalkiak jartzen direnean pieza bakarrean joaten dira, normalean; izan ere, konketa integratuta dator. Sukaldeetan moduan, tiratzaile integratuak dituzten altzarien eskiera handia izaten da".

## ESPASIOA APROBETXATU

Bezeroek gehien eskatzen dutena horma-armairuak izaten dira. Neurria egindakoak nahi izaten dituzte, altu errematatutakoak, eta zabalak, lekua hobeto aprobetxatzeko. Bide batez, armairuen eta paretaren artean tartetxorik utzi gabe.

## ARMAIRU PRAKTIKOAK

Armairuen ateei dagokienez, berriz, irristailuak direnak eskatzen dira gehien. Praktikoak dira, eta lekua aprobetxatzeko modukoak. Ateak zabaltzerakoan espazioa txikitu egiten da inguruan, eta ate irristailuekin ez dago atea ireki beharrik, arazo horri irtenbidea emanda.

Ateak zabalak eta lauak eskatzen dira, batez ere, eta gailentzen den kolorea zuria da, egurrezko koloreaz gain. Zuriak beste kolore batzuekin oso ondo konbinatzen du, eta argitasuna lortzen da, bide batez.

"Kristal opakuak ere erabiltzen dira, koadroak eginez, zilarrezko detaileak jartzeko eskiera ere egiten dute askok". Edozelan ere, ateendako erabiltzen den material nagusia mate zuri lakatua da, melaminaren modukoa dena.



Armairuaren eta paretaren artean tartetxo gabe.



Armairuaren ireki eta espaziotsua.

## Armairuen barnealdea nahi bezala

Berrikuntzak dauden arren, melaminazkoak izaten dira, normalean, armairuen barnealdeak; zuriak, egur-kolorekoak, zuntz akaberarekin... Material iraunkorra eta ekonomikoa eskatzen du bezeroak, Carrascal Aroztegiko esanetan. Arropa eskegitzeko barrak, apalak, oinetakoak jartzeko apalak eta tiraderak eramaten dira armairuen barnean. Baina armairu barruko elementuen antolaketa bezeroaren eskaeren edo beharren arabera egokitzen dira Carrascal Aroztegian. Armairu barnealde politak, inguruarekin bat egiten dutenak.



Bainugelako estalkia pieza bakarrean.



**carrascal**adapt  
sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA  
ZEURE GUSTURA



Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc\_1@infonegocio.com

# UGARTE

ONATI ERAIKUNTZAK

- > HORMIGOIZKO EGITURAK
- > IGELTSEROTZA
- > ZAHARBERRITZEAK
- > PROMOZIOAK

**943 78 05 54**

**943 78 32 40**

ugarte@cnes-ugarte.com







Logelak erosotasuna eskaini behar du, kolore neutroekin lasaitasuna lortuta.



Egongela dotorea, kolore zuria eta beltza nagusi.

# Egongela eta logela neutroak

Altzari modernoak alde batera utzi barik, egur kolorea zuriarekin eta beltzarekin konbinatzen da dotorezia lortzeko

**K**olore neutroak erabiltzen dira logeletako eta egongeletako paretetan, eta horiek gura dituzte bezeroek. Kolore zuria da nagusi egongeletan; eta logeletan, berriz, intxaur-kolorea eskatzen da, nahiz eta margotzeaz bat paperarekin estaltzea eskatzen duten askok: loreak dituztenak, marra zuzenekoak eta testurak dituzten paper leunak, besteak beste.

Egongelako altzariak aukeratzeko orduan, egurra da aurtengo joera berriz ere. Askok intxaur-egurra nahi izaten dute, egurraren marrazkia bistaratuta. Hala, dotorezia gura dute, eta hori eskatzen dutenek egongelako gainerako elementuekin kolorea ematen diote altzariarekin konbinatuta; esaterako, gortina, edo alfonbra koloretsuak erabiltita. Altzari arinak nahi ditu jendeak, gauzak gordetzeko soilik, eta hondo txikikoak nahi izaten dituzte; telebista lauengatik izan daitekeela adierazi du Ugarte Aroztegiko Rosa Muradas-ek.



Logelari espazioa ematen dion horma-armairua.

Uniformetasuna gura izaten da logelan, altzariarekin bat egiten duten kuxinak eta alfonbrak erabiliz. Armairuen eskulekuei dagokienez, *push* erakoak ziren lehen, eta gaur egun, aldiz, luzeak nahi ditu bezeroak.

Bestalde, kristalezko altzariak ere asko erabili dira gaur egun arte. Horiek gardenak edo koloretakoak izan daitezke, barruko elementuak ikusten diren horietakoak. Gaur egun, aldiz, baztertu egiten dira. Izan ere, tonu berbera eta uniformetasuna lortu gura da, eta talka egiten du kristalezko altzariak gainerako dekorazioan.

## LOGELA EROSOAK

Logeletan ere kolore neutroak nahi ditu bezeroak, erosotasuna bilatu nahian. Kolore zuria beltzarekin eta egur-kolorearekin nahastea ohikoa izaten da. Paretetan kolore zuria asko eskatzen da, eta, hori osatzeko, oheburu inguruan papera erabiltzen hasi da, altzariak nabarmentzeko asmoz.

Armairuak, berriz, paretari itsatsita nahi izaten dira, bitarte barik. Ahal izanez gero, sabaira guztiz itsatsita daudela, garbiketa errazteko. Gidaridun atek dituzten armairu sinpleak, modernoak eta minimalistak eskatzen dira, baina barruan berritasunak ere ikusten dira: logelaren paretako kolorea zuria bada, armairuaren barruan gerezi kolorea, intxaur-kolorea, eta abar eskatzen da. "Bezeroek dotorezia lortu gura dute detaile honekin, oso polit egiten du eta jendea pozik geratzen da". Bestalde, horma-armairuen eskaera ere badago, ate

irristailuak dituztenak edo atetik gabekoak. Hala, logelako espazioa ahalik eta ondoen aprobetxatzen da, eta neurrira ere egiten dituzte armairuak Ugarte Aroztegian.

Armairuen apalen lodiera bi edo hiru zentimetrokoa izaten da, pisuarekin horiekin ez okertzeko. Bestalde, ate lauekin jokatzen da.

## LANPARA ESEKIAK

Aspaldiko lanpara handi eta esekiak berriz daude modan: sabailanparak. Modernoagoak dira, baina "askok atzera egiten dute garbiketarengatik; izan ere, ez da samurra horiek garbitzea. Oihalezko tulipa-lanparak kristalezko zintzilikariekin oso elegante geratzen dira".

Mesanotzeko lanpara mitikoak ere asko aldatu dira: gaur egun, mahaitxo libre utzi nahi da, eta, horretarako, sabaitik edo paretatik argi zuzen bat bideratzen da. Askotariko argi zintzilikariak daude, eta logela intimoago bihurtu gura izaten da elementu horrekin.

**Sabaitik zintzilikatutako lanparak mesanotxeetan**

**Gidaridun ateen barruan kolorea berritasun**

**UGARTE**  
AROTEGIA - ALTZARIAK

### ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

### AROTEGIA

San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

### BERGARA

aroztegia@ugartearoztegia.com



Proiektuak · Koltxoak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurrira  
Ateak · Eskailerak · Leihoak ·  
Tarimak · Egur lanak





# Eskoriatzako San Pedro parrokian konponketa lanak egiten ari dira

Eguenean eta egubakoitzean Aranburuzabalako kale zati bat itxita egongo da, Arbiñosteko irteeratik zubiraino

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Duela hilabete batzuk tximista batek Eskoriatzako San Pedro elizako kanpandorra jo zuen –kanpandorreko dekorazio elementuetan– eta sabaian kalteak eragin zituen. Orduko kalteak konponduta geratu ziren, baina, lan horiek egitean, beste hainbat dekorazio elementu ere apurtuta zeudela konturatu ziren langileak; zortzi, guztira –errosetak, txanpinoi formakoak...–, forma eta itxura askotarikoak.

Orain arte zain egon dira obra-ko langileak konponketa lanak egiten jarraitzeko; harginek piezak egin arte itxaron behar izan dute. "Dekorazio harri batek 200 kilo inguru ditu, eta gurutzea kendu beharko dugu hori jartzeko...", azaldu du obrak egiten diharduen Ramel enpresako arduradunak. "Hau egiteko aldami handiago bat jarri dugu, baina 50 metroko garabi bat ere erabili dugu".

Astelehenerako edo martitzenerako amaituko duten aurreikuspena dute obraren arduradunek, baina egun batzuk gehiago egongo dira bertan, bide batez, San Pedro parrokiak eskatuta, garbiketa lanak egiteko.



San Pedro parrokia atzeko ikuspuntutik aldami jarrita. | JOSEBA GABILONDO

## Errepidea itxita

Aste honetako lanen berezitasunak errepidea moztea ekarriko du eguenean eta egubakoitzean. Hain zuzen, azaroaren 12an eta 13an, elizako zubitik Arbiñosteko irteeraraino bidea itxi egingo dute ibilgailuendako.

Goizeko zortzietatik arratsaldeko seietera itxiko dute bi egunetan, eta gauean, berriz, irekita izango dute errepidea ibilgailuek. Bada, egun horietan, Arrasateko noranzkoan doazen ibilgailuek Dorleta auzotik joan beharko dute.



Triangelu formako horma-irudia egingo dute. | BIDEGI

## Muntaketa lanetan ari dira Eskoriatzako sarreran dagoen horma-bularrean

I.B | ESKORIATZA

Bidegik, Gipuzkoako Azpiegituren Agentziak, zuhaitzen marrazkiak dituen triangelu formako horma-irudi digitalarekin estaliko du GI-627 errepide gaineratik doan pasabide zaharreko horma-bularra.

Obrak astelehenean hasi ziren, eta 18 metro luze eta 6,4 metro garai den horma-bularreko irudia hamazazpi panelek osatuko dute. Horretarako, errepide bazterrean aldami jarri dute.

## Aurreko irudia estali

Aste Zapatistako kideek murla margotu zuten leku berean, eta margotzeko baimena eskatu zutenean hitzartuta zegoen pareta horren eraberritzea. Hala, Udaleko ordezkariekin hitz eginda, Bidegiren eskumena dela adierazi dute. "Gutxietsi gabe, Bidegik burutuko duen lana uste baino azkarrago gertatu da, artelan eder bat artifizial batengatik estaltzea...", adierazi dute Aste Zapatistako kideek.

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak salgai

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunen *Amalur* ikuskizunerako sarrerak gaur jarri dituzte salgai kiroldegian, sei eurotan. Antzezlanazaroaren 21ean, zapatuan, izango da, arratsaldeko bost eta erdietan, eta, hain zuzen ere, guztiak sarrera beharko dute, heldu eta nagusi.

## Eskoriatza Garbia plataformak tortilla-jana antolatu du

Eskoriatza Garbiak tortilla-jana egin zuen atzo herriko plazan. Gaur, aldez, Intxaurtxueta auzoan egingo du, 19:00etan. Ekimen horrekin, bosgarren edukiontzia aldez egiteko eskatu nahi die herritarrei, eta, bide batez, azaroaren 29an bozkatzera joateko eskaera egin.

# Carlos Navarro entrenatzaile ezagunak hitzaldiak egingo ditu egunotan

Egubakoitzetik domekara bitartean saio praktiko eta teorikoak izango dira

I.B | ESKORIATZA

Emakumezkoen areto futboleko entrenatzaile ezagun Carlos Navarro Eskoriatzako izango da azaroaren 13an, 14an eta 15ean hitzaldiak egiten. Doako prestakuntza jardunaldiak egingo dituzte Manuel Muñoz kiroldegian eta Ibarraundi museoa, eta Eskoriatza Kirol Elkarteak gonbidapena egin nahi die areto futboleko entrenatzaile guztiei bertara daitezten.

Eskoriatzako Udalak, Kirol Elkarteak eta Nazioarteko Areto Futbol Entrenatzaileen Elkarteak (ANEFS) antolatutako ekimenak hiru hitzaldi izango ditu, teoriakoak zein praktikoak izango direnak. Hala, gaur egun emakumezkoen areto futboleko lehen mailako Alacant unibertsitateko taldeko entrenatzaile Carlos Navarrok hainbat azalpen emango dizkie bertaratzen diren entrenatzaile, kirolari eta interesatuei.



Carlos Navarro. | SALAFEMENINO.WORDPRESS.COM

## Egitarau zabala

Egubakoitzean hasiko dira jardunaldiak, 20:30ean, Ibarraundin. Gaur egun emakumezkoen areto futboleko dagoen egoera aztertuko dute *Oinarritik*, *elitera* hitzaldi teorikoan.

Zapatuan, berriz, 09:45etik 11:00etara, kiroldegian, *teknika progresioaren* inguruan arituko dira; hain zuzen, azalpen teorikoa eta praktikoa emango dute. Arratsaldean, 18:15ean, bigarren mailako Ordizia eta Stylo Berrio taldeen arteko derbia jokatu da Ordizian. Hala, Kirol Elkartetik gonbidapena egin dute arratsaldeko partidura joan eta bigarren mailako taldeen arteko partidua ikusteko.

Domekan, *Defentsa altua eta 4-0 fundamentuen* hitzaldian, hainbat azalpen emango dituzte praktika moduan. 11:30etik 12:30era bitartean izango da, eta hala amaituko dira aste bukaerako jardunaldiak.

Ohar moduan, Kirol Elkartetik puntualak izateko eskaera egin dute, orduak errespetatuz, jardunaldiez gain dauden ekintzei trabarik ez egiteko.

## 'Amama' filma ikusgai izango da Zaldibarren aste bukaeran

Gaur, bihar eta etzi izango da Asier Altuna zinemagilearen *Amama* filma ikusgai Zaldibarren. Lau eurotan eros daitezke sarrerak kiroldegian, edo pelikulen aurretik leihatilan. Gaur, 22:30ean izango da, eta bihar, 20:00etan; biak, euskaraz. Eta etzi, 19:00etan, gaztelarazko azpigituluekin.

## Herri kontsultan botoa aurretik emateko egun bat gehiago egongo da

Hondakinen gaineko herri galdeketa aurretiko bozka emateko bi egun ezarri zituen Udalak, baina hainbat herritarrek egun bat gehiago eskatu dute. Eskaera horri erantzunez, azaroaren 20an, 23an eta 24an egongo da aukera botoa aurretik emateko. Udaltxean, 09:00etatik 14:30era.

Frutería MARTIN Frutateria

FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA

San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58



# Haurrendako musika eta jolasa Taun Taunen ikuskizunarekin

Emanaldia azaroaren 15ean izango da, domekan, Torresoroan, 19:00etan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Taun Taun Teatroa konpainiaren eskutik, haurrendako *Batuta* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute herriko gaztetxo eta gurasoek. Bizitzaren gaineko metafora handi bat da, musika ere ardatz duen txotxongilo emanaldia. Batuta eta Notatxo protagonistek maleta batean bidaiatzen dute, eta ikus-entzuleendako musika eta jolasak egingo dituzte.

Izan ere, musika ibilaldi klasikoenetik –Bach, Mozart, Kha-txaturian, Haendel eta Txaikovski– modernoenerainoko bidea egiten du ikuskizunak txikitxoan gozamenarako. Abesti modernoen artean izango dira entzungai Elvis Presley eta The Beatles talde ezagunen hainbat kantut. Gainera, Itsaso Azkarate zuzendariak dio aise errekonozituko dituztela gaztetxoek.

Hala, txotxongiloek bizitzaren bidera trenez eramango dute ikusleak. Txotxongilo horiek maneiatuko dituzten artean dago Iñá-



Batuta da txotxongilo protagonistetako bat. | TAUN TAUN TEATROA

ki Mata antzuolarra ere. Matari, Itsaso Azkaratek eta Karlos Odriozolak lagunduko diote aktore lanetan txotxongiloek bizitza eta espresioa emateko.

## Txotxongiloak

Taun Taunek egindakoak dira txotxongiloak. Elementu eta material simpleekin egindakoak dira,

gainera: plastikorekin, egurra-ekin eta gomarekin, besteak beste. Protagonista, baina, besteekiko nabarmenagoa da, handiagoa. Izan ere, metro bateko txotxongiloa da eta agertokia bete egiten du.

*Batuta* txotxongilo emanaldia domekan izango da, azaroaren 15ean, Torresoroan, 19:00etan.

## Erretiratuen karta txapelketan izena emateko epea zabalik

Landatxopeko erretiratuek karta txapelketa antolatuko dute aurten ere. Parte hartu gura dutenek izena emateko aukera dute azaroaren 26ra arte. Azaroaren 30ean briska txapelketa egingo dute; abenduaren 1ean puntu txapelketa; abenduaren 2an tute txapelketa; eta abenduaren 3an mus txapelketa. Partida guztiak erretiratuen elkartean egingo dituzte.

## Arrolarekin federatzeko bestelako urratsak egin beharko dira

Arrazoi ekonomikoak direla eta, aurten ezberdin egin beharko dute Arrolarekin federatu gura dutenek ordainketa. Modu horretan, federatu nahi dutenek dagokien kopurua ingresatu beharko dute Arrola Mendi Taldeko kontu korrante zenbakietan. Ondoren, ziu-tagiria Arrolako batzordeari eman beharko diote. Aurrerago jakinaraziko ditu Arrolak pauso zehatzak. Dagokion dokumentazioa ere pasako duela azaldu du.

## Zurumurruei erantzuna emateko tailerra martitzen

Zurumurruen aurkako tailerraren bigarren saioa azaroaren 17an izango da. Kasu horretan, zurumurruei nola erantzun jakiteko saioa egingo dute. Agustín Untzurruntzaga SOS Arrazakeria taldeko kidea izango da gidaria. 18:00etan egingo dute, Olaranen. Azaroaren 24an azken tailerra egingo dute eta zurumurruek kudeatzeko bideak aztertuko dituzte.



Basalde auzoko errepidea zartatuta eta zulatuta. | MAIDER ARREGI

## Basalde auzoko bidea konponduko dute

Urtea bukatu aurretik egingo dira lanak

M.A. | ANTZUOLA

Basalde auzoko Zorroztarrieta baserriko bizilagunek errepidearen egoera oso arriskutsua dela salatuko dute. "Egoera txarrean dago baserriko errepidea: guztiz zartatuta eta zulatuta. Bost familia egunero-egunero igarotzen da bertatik; oso arriskutsu dago. Gainera, negua ere badator eta horrek egoera okertuko du. Ekainetik gaude konponduko ote dutenaren zain. Diputazioarekin hitz egin arren oraindik geldirik dago egoera", azaldu dute Zorroztarrieta baserriko bizilagunek.

Diputazioak azaldu duenez, urtea amaitzerako konponketa lanak egingo dira. "Behin behi-

neko konponketa izango da. Izan ere, Antzuola-Bergara errepideko lanak amaitu bitartean, bide horretatik kamioiak pasatzen jarraituko dute-eta. Lanak amaitzean, baserri bidea modu egokian konponduko da".

Aintzane Oiarbide Azpiegitura diputatuak dio Antzuola eta Bergarako alkateekin bildu zela eta biei galdetu zela keaxaren bat ba ote zegoen. Erantzuna ezekoa izan zela dio.

Antzuolako alkateak, Bernardo Kortabarriak, argitu duenez, diputazioarekin lanetan epean gainean jardun zuen eta egiteko dauden bestelako lanak ere gogorarazi zizkiola batzarrean Oiarbideri azaldu du.

## Eman deigun danon artian gaztetxian bultzada bat!

KOMUNITATEA GOIENA | GAZTETXEA | ANTZUOLA

"Gaztetxian hiru aldiz lapurretan in dabe"; "Bai, neri esan doste berak lapurtu dabela"; "Ah, bai? Ba igual hala izango da, bera halakua izanda..."; "Bestela, beste haura be izan leike...".

Hala da, bai. Gaztetxian lapurretan in dabe, hiru aldiz zehazki. Bertako gauza batzuk eruan ditxue, bai. Baina, ez, ez dakigu zein izan dan. Zurumurruek handik eta hemendik, pertsona harek esandakua egia ete dan edo ez, nik uste dotena egia dan edo ez...

Zurumurruek jai Antzuolan. Danok dakiun bezalaxe, azken hilabeteotan gaztetxian egoeria ez da oin dala hiru urte bizi zeban berdina. Onartzen du. Jendia pixkanaka-pixkanaka arrazoi desberdinak medio, asanbladetara ez da juten, danon motibaziñuak behera in dau, bai. Jaixak antolatzen kantzau in ginen, horren atzian kezkek, lan orduak... Lana in bihera dago. Eta gaztetxian, berdina pasatzen da.

Zorionez, kuadrila berri bat gogoz sartu zan lanerako; gauza berriak itxeko zein ikuste-

ko aukeria egon zan, gustu desberdinetarako ekintzak.

Eskerrak emon nahiko gon-tzake udatik gaur arte lanian jardun daben kuadrillatxuai, ta noski, hiru urte honetan modu batera edo bestera bertan parte hartu dabenai! Aupa zuek!

Juan zan zapatuan, asanblada irekixa antolau ginuan gaztetxia berpizteko asmoz, bultzadatxo bat emateko hor daukun txokuai.

Jende desberdina agertuko zan esperantzaz, 12:00xetarako zortzi pertsona agertu ginen. Betikuak.

Ze in honen aurrian? Betiko ideiak, etorkizunai aurre itxeko jende bihera ikusten ginuan, jende desberdina, ideia berriak ekarri leizkena, gaztetxian bultzadatxo hori emateko prest dagon norbait, gazte zein heldu, bertako zein kanpotar. Orokorrian, herri-txarrak.

Danondako lekua da, ez da ez guria ez zuria, herrixantza dagon txoko bat, atiak zabalik dauzkana hainbat ekintza itxeko edota beste barik, atsal-dian bertan egoteko!

Eta zuk, ze daukazu honen inguruan esateko?



MAIDER ARREGI

**Ping-pongaz  
gozatzeko  
dihardute  
dagoeneko**

Lehenengo ping-pong mahaia jarrita dago pilotaleku txikiaren alboan. "Proba gisa jarri dugu, eta, materiala gogorra dela ikusita, berdina den bigarren mahaia ere laster ipiniko dugu", azaldu du Antzuolako alkateak. Herriko gaztetxoek gustura hartu dute ping-pong mahaia, eta eskolatik irteten direnean ere bestelako jolas bat egiteko aukera dutela orain diote.



# Gimnasioa handitzeko laguntzak eskatzea onartu dute aho batez

EH Bilduk aurkeztutako bi mozioen gainean ez ziren adostasunera iritsi

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Ezohiko osoko bilkura egin zuten joan zen egunean, azaroaren 5ean. Bi puntu onartu zituzten aho batez: batetik, obra txikiak egiteko laguntzen programan diru laguntza eskatzea. Kiroldegian gaur egun dagoen gimnasioa "txikia" dela eta ez dela "ezertarako erabiltzen" azaldu zuten. Hala, asmoa da komunak desplazatu eta 70 metro koadroko gimnasio bat egitea. Horretarako, 35.000 euroko diru laguntza eskatuko dute.

Bestetik, 19.000 euroko diru laguntza eskatuko dute auzoen arteko harremanetarako 2016ko programaren kontura. "Aixola auzoan malda handia duen bidexka bat dago; bada, negu partean urak material asko ekartzen du eta estolderia bete egiten da", azaldu zuen Martin Arriolabengoa zinegotziak. Hala, dagoena egokitu eta konpondu egingo dute: arekak egingo dituzte aipatutako bidexkan.

## Adierazpen instituzional bi

EH Bilduk Arabako Lanak SA mozioa aurkeztu zuen. "Aramaioko Udalaren aurka Lehiaren Euskal Aginteak zabaldu duen espedientearen aurrean eta kontuan izanda Arabako Foru Aldundia dela Tokiko Erakundearen babes finantzario eta aholkularitza juridikoaren erantzulea, Udal honek Aldundiak Arabako Lanak SA sozietate publikoaren bitartez eskainitako zerbitzua erabiltzea besterik ez zuela egin" dio mozioak. Horren aurrean, besteak beste, Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Lehiaren Euskal Aginteak ireki duen espedienteak ekar ditzakeen ondorioak bere gain har ditzan. Mozioa EH Bilduren aldeko lau botoekin onartu zuten. EAJk aurka bozkatu zuten.



Osoko bilkura: EH Bilduko lau zinegotzi, EAJko hiru. | ARANTZAZU EZKIBEL

## Azaroaren 25a

Emakumeen aurkako biolentzia desagerrarazteko nazioarteko egunaren harira, EH Bilduk aurkeztutako adierazpena onartu zuten EH Bilduren aldeko lau botoekin eta EAJren abstentzioarekin. EAJk bi puntu batzen zituen adierazpena aurkeztu zuen Udalean -epe kanpo-; hala ere, alkateak osoko bilkurara eraman zuen jeltzaleen mozioa. Bi alderdiak ez ziren adostasunera iritsi eta EH Bilduren mozioak egin zuten aurrera.

"Emakumeek biolentzia matxista ororengandik libre bizi ahaliko diren bizitza espazio komunak eraikitze asmoz, jendarte parekidea oinarri duen herri eta lurralde seguruak lortzeko, herri konpromisoa sakontzeko ardura hartzen dugu", dio adierazpenak. "Erakunde orok lehentasuneko behar du izan bere agenda politikoan eta jardun instituzionalean, biolentzia matxistarik gabeko herri eta lurralde libreak eraikitzea", dio. Horren aurrean, EH Bilduk Euskal Herria feminista eta aktibo baten aldeko aldarrikapena egiten du, eta zazpi konpromiso hartzen ditu bere gain: besteak beste, Emakumeen Mun-

du Martxak onartu duen biolentzia matxistari aurre egiteko protokoloa bere gain hartzea. Gainera, Aramaioko Udalak *biolentzia matxista* terminoa erabiltzeari eutsiko dio, eta borroka feministarekin daukan konpromisoa berrestu zuen.

Azkenik, azaroaren 25aren harira mugimendu feministak deitu dituen mobilizazioekin bat egin, eta horietan parte hartzeko dei egiten dio jendarteari.

Ezohiko osoko bilkuran EAJk emandako abstentzioaren gainean, ohar bidez zera azaldu dute Aramaioko jeltzaleek: "Adierazpen horrek konpromisoa hartzea besterik ez dio eskatzen Udalarri; gainerako erakundeek, aldiz, jakintza zuzenak egitera dei egiten die. Gainontzekoei asko esku eta norberak gutxi egin". EAJk emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurka ere egiten duela azaldu dute oharrean, eta erasoetatik at, errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarritutako pertsonen arteko harremanen alde daudela. Nazioarteko Egundaren harira egingo diren ekitaldietan parte hartzera eta *Beldur barik* ekimenen parte hartzera deitzen dute, gainera.

## Fernando Perez eta Jon Kortabarria izango dira Ibarako auzo-alkateak

Domekan aukeratu zituzten, bozketa bitartez

A. ARANBURUZABALA/A.E. | ARAMAIO  
Lau urteko epealdiaren ostean, auzo-alkate berriak izendatzen hasi dira. Joan zen domekan, Ibarako auzo-alkateak aukeratu zituzten bozketa bitartez. 50 herri-tarrek parte hartu zuten bozketan. Sastiñan eta erretiratuen elkarrearen ondoko plazatzon ipini zituzten hautetsontziak. Bi auzo-alkate onartu zituzten: Fernando Perezek urteetan izan duen karguarekin jarraituko du, eta domekan bozkatuena izan zen Pedro Ignazio Barrutia, Nardeaga eta Santakruz Abadearen plazatzon hartzen dituen gunean. Jon Kor-

tabarriak, berriz, kargua estreinatuko du Ibargoia, Aita Gabirel Jauregi, Iturri Zuri eta Bixente Goikoetxea kaleek osatzen duten gunean.

## Parte-hartze txikia

Lierni Altuna alkatearen iritziz, parte-hartze txikia izan zuen domekan egindako ekimenak: "Auzoetako bozketek harrera ona izaten dute, baina Ibarako auzoetan, berriz, ez da horrenbeste izaten".

Udalak datozen egunetan osatuko du auzo-alkate guztien zerrenda berria.

## Oraindik ere eros daiteke kofradiari buruzko liburua

A.E. | ARAMAIO

Ibabeko Andra Mari kofradiak deialdi berezia egin du Gabonei begira. "Inor ez da hotz geratuko irailen argitaratu genuen liburua irakurtzean. Aramaioko historiaren zati bat da; horregatik, gure iraganarekin lotura dutenen etxean egon beharreko liburua da", esan dute. "Gabonei begira opari ederra izan daiteke; Arrasateko Elkar liburu dendan eta Aramaioko okindegian, liburutegian, udaletxean eta Kintalen eros daiteke liburua", azaldu dute kofradiako kideek.

## Txapel jaurtiketa izango da San Melixen jaietako berrikuntza

A.E. | ARAMAIO

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, San Melixen jaiak ospatuko dituzte Gantzagan.

Kanpai errepikarekin hasiko dituzte jaiak. 12:00etan meza nagusia esango dute Aretxabaleto abesbatzak lagunduta. Ondoren, gainera, kontzertua eskainiko dute. 13:00etan bermut dantza izango dute eta aurtentzen lehenengo aldiz egingo duten txapel jaurtiketa lehiaketa. Bazkal ostean, mus txapelketa eta patata tortilla lehiaketa egingo dute. Gainera, 17:30ean, umeendako jolasak eta puzgariak jarriko dituzte. 19:30ean tortilla lehiaketako sari banaketa egingo dute.

Afalostean dantzaldia izango dute eta ohera joan aurretik txokolate beroa izango dute, "barruak berotzeko".

## Txirrindulari igoera

Domekan jarraituko dute ekitaldiek. 09:00etan kanpai errepika izango da eta etxafuegoak botako dituzte. 11:00etan bailarako txistulariek kontzertua eskainiko dute. Kirolak ere izango du bere tartea jaietan. 12:30ean 35. Gantzaga Saria txirrindulari igoera egingo dute eta 13:00etan triki-poteoa Aramaioko trikitilariarekin. 17:00etan tute txapelketa egingo dute.

## Kantu bazkaria

Azaroaren 22an jaien errepikapena egingo dute. 14:00etan kanpai errepikak egingo dituzte eta 14:30ean kantu bazkaria. "Iaz arrakasta handia izan zuen bazkariak, ea aurtentzen ere horrela den", esan dute antolatzaileek. Sei Pistols eta Trabuko Bat taldeek girotuko dute bazkaria.



Gantzagako jaietako patata-tortilla lehiaketa. | GOIENA

## Marraskia, leloa eta testua norberak aukeratu beharko du orri-markagailuen lehiaketan

Orri-markagailuen X. lehiaketa antolatu dute: marraskia, leloa eta testuaren gaia parte hartzaileak aukeratu beharko ditu. Lanak 4,5x21 zentimetroko neurriak izan beharko ditu, eta folioan edo kartoi mehean aurkeztu beharko da: abenduaren 4ra arte egongo da horretarako aukera -liburutegian, udaletxean edo Zuiako Kuadrillaren bulegoan-.

## Trikikalejira elkarteko trikiti eta pandero soinuek girotuko dute gaur arratsaldean plaza

Eguaztenean San Martin eguna izan zela ospatzeko emanaldia eskainiko dute gaur, barikua, Trikikalejira taldeko kideek. 19:00etan elkartuko dira udaletxeko arkupeetan eta trikitia eta panderoa joko dute. Gainera, pintxoak eta edariak jarriko dituzte salgai, eta zozketa ere egingo dute. Elkarteak aurrera egiteko horrelako ekimenak "oso garrantzitsuak" direla azaldu dute Trikikalejira elkarteko kideek.

## Laboral Kutxaren partidua ikusi nahi duenak gaur, barikua, du izena emateko azkeneko eguna

Azaroaren 22ko Laboral Kutxaren eta Bartzelonaren arteko partidua ikustera joateko irteera antolatu du Zuiako Kuadrillak. Partidua 18:00etan izango da, eta izena emateko azkeneko eguna azaroaren 13a izango da. Horretarako, Kuadrillaren kontu korronte zenbakian -2095 3224 21 1091573864- sartu beharko da dirua -4 eta 14 urte bitartekoek 10 euro, eta 15 urtetik gorakoek 14 euro-, eta derrigorrezkoa izango da ordain-agiria udaletxera eramatea.



# Pintxo lehiaketa ofiziala eta trikitilariak domekan Elgetan

Sei tabernak hartuko dute parte eta irabazleak 14:00etan jasoko du txapela

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ate joka dago Elgetako VIII. pintxo lehiaketa. Tabernariak bina pintxo gertatuko dituzte, eta epaimahaia taberna bakoitzeko onena eta txapelketako onena aukeratuko ditu. Bezeroek aukera izango dute euro bateko prezioan dastatzeko, 12:30etik 14:00etara. Hurrengo bi domeketan —hilak 22 eta 29— nork bere pintxo onena eskainiko du. Orduan, herritarrek izango dute hitza, eta boto bidez herritarren saria erabakiko dute. "Helburua da herri giroa sortzea eta tabernariak elkarlanean ostalaritza jardura bultzatzea", adierazi du Kulturako batzordeburu Janire Lazkanok.



Maialde jatetxean pintxoak dastatzen. | GOIENA

## Txapelketa ofiziala domekan

Herriko sei tabernak hartuko dute parte, aurten, pintxo lehiaketa, eta garrantzi berezia emango diote Gatzagako gatzari. "Pote bat ekarri dugu eta banatu egingo dugu. Pintxoak egiterakoan erabiltzeko eskatzen dugu", azaldu du Lazkanok. Epaimahaiko hiru kideek tabernetan dastatuko dituzte pintxoak, 12:00etan hasita. "Aurten, zozketa bidez finkatuko dugu ordena. Hala, tabernari bakoitzak aurrez jakin-

go du epaimahaia zein ordutan pasako den". Zaporea, itxura eta elaborazioa hartuko dituzte kontuan. Hamabi pintxoak, bestalde, ikusgai egongo dira udaletxeko arkupean.

Jainaga eta Narbaiza trikitilariak ere Elgetan izango dira domekan. Kaleak girotuko dituzte, 12:30ean hasita. Sari banaketa 14:00etan izango da. Herriko plazatik kalejiran abiatuta eramango diote txapela irabazleari. Herritarrek gonbidatuta daude bertaratzerara.

## Hiru domekatarako egitaraua

Hilaren 22rako Elgeta Kantuan iragarri dute, eta hilaren 29rako bertsolariak: Manex Agirre eta Xabi Igoa. Azken domekan argazki lehiaketa ere egingo dute. Eta pintxo osagaiak asmatzeko erronka botako diete bezeroei. Tabernari bakoitzak txakolin eta ardo botila bana zozkatuko ditu parte-hartzaileen artean. Herritarren saria aukeratzeko botoa ematen dutenen artean, berriz, 30 euroko bonua zozkatuko dute taberna irabazlean erabiltzeko.

# Herritarrengandik jasotakoak mahai gainera

Eguazteneko batzar irekian partekatuko ditu Udalak ehun bat elgetarrek egindako ekarpenak

L.Z. | ELGETA

Danon artian, danon herrixa parte hartze prozesuaren lehenengo batzar irekia egingo du Elgetako Udalak eguaztenean, hilak 18. Bertan, aurreko asteotan herritarrengandik jasotako ekarpenak partekatuko dituzte, eta baita profil eta adin askotariko herriko zazpi eragileri egindako elkarriketa pertsonalizatuek emandakoa ere. "Banakako iritziak jaso ditugu orain arte, gai bakoitzaren inguruan herritarrek dituz-

ten proposamenak eta ekarpenak", adierazi du parte hartze prozesuan gidari lanak egiten diharduen Agurtzane Loidik. "Helburua orain ekarpen horiek aurkeztea eta denon artean osatzea da. Garrantzitsua da iritzi eta perfil ezberdinetako jendeak parte hartzea (...) Horregatik, herritar guztiak gonbidatzen ditugu eguaztenean, 19:00etan, udaletxean egingo dugun batzar irekian parte hartzerara. Denok daukagu zer esana", gaineratu du.

## Dantza-afari tematikoa abenduaren 11n

KOMUNITATEA GOIENA  
HERRIXA DANTZAN | ELGETA

Herrixa Dantzan ekimenak bigarren dantza-afari tematikoa antolatu du: lagun arteko afari-pasa eta dantza, oraingoan, Errusia eta Setomaa herrialdea gai hartuta. Abenduaren 11n izango da, ostirala, Elgetako Espaloia kafe antzokian, 21:00etan. Aldez aurretik eman behar da izena 675 94 46 09 telefonora deituta edo izena emateko formularioa beteta. Afariaren eta dantzaldiaren prezioa hogeituro euro da. Afalostean izango da dantza tailerra.

## LEINTZ GATZAGA

# Boluntario faltan dabilta erretiratuen elkarteak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Debagoieneko erretiratuen elkarteetako 20 ordezkariatik gora Leintz Gatzagan elkartu ziren herenegun, eguaztena, bi hiletik behin ohikoa duten batzar orokorrean. Mahai gainean izan zituzten gaien artean, besteak beste, erretiratuen elkarrean aldetik "partaidetza" suma-

tu du faltan Jose Rivierek, Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteetako presidentea. "Komeni da Gipuzkoan abian jartzen ditugun ekimenetan parte hartzea eta nork bere udalerririk martxan jartzea, ez bakarrik aisialdiarekin lotutako ekimenak, baita ekimen sozialak ere". Boluntario beharra

ere aipatu zuen, eta baita gaixotasun jakin batzuk —alzheimerri egin zion erreferentzia— ikeritzeko finantzazio beharra erakundearen aldetik.

## Leintz Gatzagan ere bai

Bestalde, Juan Mari Makazaga Pequeño-k bat egin zuen boluntario faltaren irakurketarekin Gatzagako elkarteari begiratuta: "Inork ere ez du kolaboratzen, lau zahar gaude hemen... ea lortzen dugun elkarte mantentzea, eta gazte batzuk sartzen badira... ba tira".



Erretiratuen elkarteetako ordezkariak, batzarrean. | UBANE MADERA

## PILOTA TXAPELKETA

### AZKEN EMAITZAK

Alberto Telleria-Angel Ibarluzea / Iban Retolaza-Enrike Elkoro	06-18
Iñaki Ugarteburu-Koldo Goenaga / Mikel Elkoro-Jose Mari Zubiaurre	13-18
Mikel Ormaetxea-Koldo Erostarbe / Josu Mañarikua-Beriat Arabaola	18-05
Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Oskar Sarasua-Andoni Elortza	07-18
Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Asier Untzetabarrenetxea-Iker Zabaleta	18-06

### GAUR, AZAROAK 13, 19:30EAN

Etor Garate-Eneko Maguregi / Oskar Sarasua-Andoni Elortza  
Epaileak: Josu Mañarikua-Beriat Arabaola eta Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta

## Hamalau lagunek eman dute izena Elgetan Berbetan egitasmoan eta hiru talde osatu dituzte

Bi talde eguazten arratsaldeetan elkartuko dira, eta hirugarrena eguaztenean. Hala, euskarazko mintzapraktikak bultzatzea helburu duen Elgetan Berbetan egitasmoa hiru talderekin abiatuko da. Kepa de Vega dinamizatzaileak datorren asterako deitu ditu lehenengo saioak. Interesatu gehiago egonez gero, edozein unetan eman daiteke izena.

## Aldaketak basoak zaintzeko, hobetzeko eta ugaritzeko diru laguntzen dekretuan

Interesatuak udaletxean dute dekretu berriaren kopia. Diru laguntza eskaerak eskualdeko nekazaritza bulegoan egin behar dira azaroaren 20ra bitartean. Bestetik, hilaren 30era arte zabalik da 2016rako baserri zein landa ingurunean egiteko proiektuak aurkezteko epea. Baserritarrek idatziz egin behar dute eskaera udaletxean, ondoren zeintzuk egin erabakitzeko.

## Sariak banatzen jarraituko dute liburutegian, eta abendurako marrazki lehiaketa iragarri dute

Liburutegiaren asteotako zozketa eta lehiaketetan Julene Etxaniz, Alazne Lozano, Irati Alkorta eta Mireia Rubio izan dira sarituak. *Ezetz igarri!* lehiaketako saria, berriz, Garazi Ojanguerenek jaso du. Liburu irakurgailu bat irabazi du, pistak jarraituta Pello Añorga eta Mariasun Landa idazleen izenak emategatik. Abendurako marrazki lehiaketa iragarri dute.

## OHARRAK

### KONTZERTUA ESPALOIAN

Gaur, barikua, 22:30ean, Cristina y los Gusanitos de Teruel taldearen kontzertua. Umorea.

### BAKARRIZKETAK ESPALOIAN

Zapatuan, 20:30ean, umorezko bakarrizketa saioa Iñigo Salinerorekin, Ane Gabarainekin eta Gorka Aginagalderekin.

### 'SORMENING'-A ESPALOIAN

Domekan, 17:00, sormen tailerra familian. Izena emateko: 658 72 12 92 (Onditz). Ordu eta erdiko saioa izango da.

### PODOLOGOA

Hilaren 19an, kultura etxean, erretiratuendako podologia zerbitzua. Txanda hartzeko: 943 76 80 77 (Nati).

### AUTODEFENTSA TAILERRA

Gaur da azken eguna hilaren 20an eta 21ean Elgetan egingo duten autodefentsa feminista tailerrean izena emateko.

### ZUZENKETA

Kirol eskaintzako bigarren spinning taldearen ordutegia da astelehenean eta eguaztenean, 19:30ean.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, beheka, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorlora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, beheka / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, beheka / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65  
Elgeta / Torrealdea 2 beheka ezk. / 943 76 80 06

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, beheka  
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### LAURA ALUTIZ

Arrasate / Otorlora Lizentziaduna, 18 solairu artea  
687 97 69 76

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA  
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, beheka / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, beheka esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

### NAGORE ARANBURU

Arrasate / Otorlora lizentziaduna 18, solairu artea, esk  
685 72 01 42

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### UNAI SERRANO

Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 2ZM / 608 48 89 88

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, beheka  
943 76 11 38 / 639 23 57 53.





Manuel Merillas eta Oihana Kortazar podiumean. | OCISPORT

**MENDI LASTERKETAK**

## Montsenyn irabazita, Sky Series zirkuitua Kortazarrendako

XABI URZELAI | ARRASATE

Montsenyko mendi maratoia nagusitasun handiz irabazita, Oihana Kortazarrek Espainia, Portugal eta Andorra barne dauden Sky Series zirkuitua irabazi berri du. Kataluniako proba 45,5 kilometroko lasterketa zen -2.800 metroko desnibel positiboarekin-, eta mila lagun batu ziren irteera puntuan.

Emakumezkoetan, elgetarrak hasierako kilometroetan lehia polita izan zuen Gemma Arenasekin, baina Sant Bernat-eko tartetik aurrera -18. kilometroa- Kortazarrek erritmoa

aldatu, eta atzean utzi zuen andaluziarra -Turo de l'Home-en 5 minutu zen alde-. Horri esker, probako azken kilometroak lasaia egin ahal izan zituen, eta 4.52.10eko denbora eginda irabazi zuen lasterketa.

**Patagonian, azkena**

Sky Series zirkuituko lasterketa ia guztiak irabazi ditu Kortazarrek, eta bihar, zapatua, amaituko du denboraldia, Patagonian (Argentina) jokatu duen mendi maratoiarekin. Ondoren, Aconcagua igotzeko asmoa dauka.

**ATLETISMOA**

# Behobia-Donostiak gutxi izan zuen kirol jaitik batzueendako

- ▶ Osasun zerbitzukoek 450 lagun artatu zituzten
- ▶ Denek ez zuten jakin izan erritmoa egunera moldatzen

XABIER URZELAI | ARRASATE

Domekako Behobia-Donostian Jose Javier Suescun korrikalari gaztearen heriotza ez zen izan lasterketak utzitako albiste ilun bakarra. Estatistika gordinek diote 10.000 lagunetik bat intentsitate handiko kirol esfortzuan hil egiten dela, baina domekan ibilbidean zehar bizi izan ziren momentu batzuek gogoeta sako-nagoa eskatzen dute.

Iragarpenak garbiak ziren, bero egin behar zuen, eta, korrikalari gehienek kirol proba lasaia-gogortzen jakin bazuten ere, denek ez zuten asmatu lasterketaz beste modu batean gozatzen. Emaitza: osasun zerbitzuek 450 lagun artatu zituzten, tartean hainbat debagoiendar, eta 23 lagun ingresatu egin zituzten -eguztenean oraindik ospitalean zeuden hainbat-. Hala, aste barruan kirol mediku Alberto Garaien adierazpenak batu ditu GOIENAK, eta hainbat atletarenak ere ekarri dira hona.



GOIENA

ALBERTO GARAI

KIROL MEDIKUA

## "Aurten bizpahiru laguni esan diegu ez zeudela Behobia egiteko moduan"

